

# AIARALDEA *hemen*



DIANA IBARGUTXI:  
**“Norbera eta besteak ezagutu zein onartzeko modu bat da sexu heziketa”** 12-15 or.



MIKEL GANZEDO:  
**“64 lagunek eman dute izena Amurrioko Quidditch txapelketan”** 26 or.



## LAUDIO 5

**Elkarretaratze jendetsua, “euskararen aurkako oldarraldiaren” kontra**  
Botere judizialak euskara arautu nahi duela salatu du Euskalgintza Kontseiluak

## AIARALDEA 10

**EH Bilduk C3 linearen egoera salatu du, eta mobilizazioak iragarri ditu**  
Otsailaren 16an elkarretaratzeak egingo dituzte eskualdeko tren geltokietan

## KULTURA 22

**Bere bigarren liburua argitaratu du Sara Cabrera** audioarrak  
Trilogia baten lehen eleberria izango da, eta urte amaieran kaleratuko du bigarren partea

## KULTURA 24-25

**David Gamboaren *Las noches que mirábamos al cielo* saritua izan da** Bangladeshen zinema zuzendariak hainbat aitorten eta sari jaso ditu bere ibilbide profesionalan

## KIROLA 27

**Spikeball izeneko kirola praktikatzeari ekin diote hainbat lagunek Artziniegan**  
Kirola ezagutarazteaz gain, euren taldearen zein proiektuen berri zabaldu dute

# Artiach: historiaren hari gorria

Lanuzte eta mobilizazioetan murgilduta dauden Artiach gailera fabrikako langileek efemeride eder batekin egin dute topo: duela 100 urte grebara irten ziren fabrika berdineko langileak zortzi orduko lanaldia exijitzeko. Ez da kasualitatea. Garaiak aldatzen dira, baita aldarrikapenak ere, baina klase kontzientzia eta langile harrotasuna oso presente egon dira beti Artiacheko langileen artean. Gaur ere, bizirik jarraitzen du duela mende bat lan-baldintza duinen alde lanpostutik altxatu ziren emakume gailera horien borrokaren lekukoak.

1922an zortzi orduko lanaldia exijitzeko greba egin zuten Artiacheko gailera langileak. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



Testua **Almar Gutierrez Bidarte**

Azaroaren 22an hasi zituzten lanuzte eta mobilizazioak Orozkoko Artiach gailera fabrikako langileek. Arrazoia, lan-hitzarmen duin bat erdieste. 80 egunez luzatu da honezkerako lan-gatazka

Ez da gailera fabrikak bizi duen lehen greba, azkena ere ez, baina efemeride borobil batekin egin du topo: duela 100 urte Artiacheko langileek greba abiatu zuten zortzi orduko lanaldia aldarrikatzeko. Borrokaren lekukoa eta klase kontzientzia belaunaldiz belaunaldi igaro dira gailera

fabrikako langileen artean, Desutoko erriberatik Orozkoko lantegiraino, eta gaur egun ere bizirik mantentzen dute duela mende bat pizturiko sugarra.

## Enpresaren hastapenak

XIX. mendean Artiach sendiakospemandi bereganatu zuen garai hartako Bilbo aurre-industrialean hirinaren komertzioarekin. Okindegia eta gozogintzari lotutako hainbat negozio zuzendu zituen familiak, harik eta 1907. urtean gaur egunera arte iritsi den gailera fabrikaren aurrekaria sortu zuten arte.

'Galletas de Artiach' izenarekin abiatu zuen bere ibilbidea gailera etxe ospetsuak,

eta 1932an aldatu zuen izena behin betiko: 'Galletas Artiach'.

XX. mende hasierako industrializazio prozesuaren olatua jarraituz, gailera egiteko prozedura ere azkar industrializatu zen Bilboko erdigunetik gertu zegoen Artiach lehenengo faktoretan.

Lan baldintza gordinenak maraktu zituzten mende hasierako Bilboko, eta, oro har, Euskal Herriko, industrializazio prozesuak: hamaika orduko lanaldiak, zazpi lanegunasteak, soldata miserableak...

Testuinguru horretan jaio zen Euskal Herriko langile mugimendua. Sindikatu eta alderdi desberdinak gorputzen

## XIX. mendean Artiach sendiak ospe eta dirutza handia bereganatu zituen garai hartako Bilbo aurre-industrialean hirinen negozioan

joan ziren langile klasearen interesak defendatzeko helburuarekin.

Artiach gailera fabrikak 1917an bizi izan zuen bere lehenengo greba esanguratsua. Bilboko eraikuntza sektoreko langileek abiatutako lanuzte eta mobilizazioek oihartzuna izan zuten gainerako sektore industrialetan, baita Artiach ere.

Artiacheko langileek jasaten zuten esplotazio egoeraren aurka altxatu ziren. Besteak beste, zortzi orduko lanaldia, soldata igoera, lanaldi hasiera eta amaiera markatuko zuen kanpai bat instalatzea ziren aldarrikatzen zituzten baldintzak. Enfrentamenduak

1907

1917

1920

1922

*Artiach sendiak, hirinaren komertzioarekin dirutza bildu ostean, gailera fabrika jarri zuen abian Bilboko erdigunetik gertu*

*Lehenengo aldiz greba egin zuten Artiaheko beharginek Bilboko eraikuntza sektoreko langileekin bat eginda*

*Bilboko urazurrutia kaleko fabrika erre eta Deustuko erriberan ezarri zuen Artiaheko gailera lantegi berria*

*Ugazabak 9 orduko lanaldia ezarri zuen enpresaren galera ekonomikoari aurre egiteko. Langileek greba egin zuten 8 orduko lanaldia berrezarri arte*

## erreportajea

egon ziren langileen eta guardien artean, eta garaiko egunkariak jasotakoaren arabera, Artiach jaunak berak langileei tiro egin zien bulegoko atetik.

Sute batek erabat kiskali zuen Artiach fabrika 1920an. Ugazabek Deustuko Erriberan faktoria berri bat irekitzeko baliatu zuten aukera. Bizkaiko industriaren ikur zen Deustuko Erribera; ontziolak eta labe garaiek marraztutako ekosistema.

## 1922ko urtarrilaren 23an eskuorriak jaurti zituzten fabrika 8 orduko lanaldiaren alde grebara batzeko deituz

Urte horietan krisiak gogor kolpatu zuen ekonomia globala, eta Bizkaiko industria guztiek, kostuak murrizteko helburuarekin lansariak

nabarmen jaitsi zituzten eta kaleratze masiboak egiten hasi ziren. 1921eko abuztuaren 31an greba orokor arrakastatsu batek astindu zuen hiria. Testuinguru horretan zabaldu zituen ateak 1921eko urte amaieran Deustuko gaileta fabrika berriak.

### 1922ko grebak

Fabrika berriak ez zituen inondik inora hobetu nagusiki emakumez osatutako plantillaren lan-baldintzak. 1922an greba ugari antolatu zituzten Artiachen, lehenengoa urtarrilaren 23an. Egun batzuk lehenago Artiach ugazabak lanaldia 9 ordutara igoko zuela iragarri zuen, "enpresak bizi zituen une zailei aurre egiteko". Urtarrilaren 23an eskuorriak jaurti zituzten fabrika barruan Artiachen "jarrera despota" salatuz eta 8 orduko lanaldiaren alde grebara batzeko deituz. Lanuzteak urtarrilaren 29ra arte luzatu ziren eta lanaldia bere horretan mantentza lortu zuten beharginek.

Hurrengo hilabeteetan ere greba gehiago antolatu zituzten gaileta fabrikako lan baldintzak hobetzearen alde. Aldarrikapenei entzungor egin zien enpresak gehienetan, baina lan-gatazka

horietan piztutako langile kontzientziak eta elkartasunak hurrengo 100 urteetan presente jarraituko dute.

### 1980ko hamarkada

Urte luzez hazkunde handia izan zuen Artiach gaileta fabrikak. 1920ko hamarkadan bezala, bertako langileek protagonismo nabaria izan zuten 1970eko eta 1980ko hamarkadetakako testuinguru politiko eta sozial bizi.

Garai horien lekuko da Rosi Pinedo. 1976an hasi zen Deustuko fabrikan lanean, 18 urte zituela. Orozkoko fabrikan jarraitu zuen, eta orain erretiroa hartzeko hilabete gutxi falta zaizkio. Ikasketak bukatu osteko udako lan bezala hasi zen bertan, eta honezkero 40 urte baino gehiago igaro ditu bertan.

Oso presente du hamarkada horietan bizi zen eztanda soziala: "Langile mugimendua pil-pilean zegoen; Euskalduna, Bizkaiko Labe Garaiak, Artiach..." Garaia hartako bat-batekotasuna du Rosik gogoan: "Une batetik bestera antolatzen genituen lanuzteak. Gogoan dut Labe Garaietan langile bat hil zenekoa; lanpostua utzi eta trenbidetik ibiltzen joan ginen

**“Oso argi genuekan gure lanpostuak defendatzeko modu bakarra elkartzea eta borrokatzea zela. Horregatik gaude gailetagile izateaz harro; daukagun guztia lortzeko asko borrokatu behar izan dugulako”**

Sestaoraino, bertan txalo artean jaso gintuzten”.

Hastapenetan bezala, emakume nagusizirenen presa izaten jarraitzen zuen Artiach. 700 langile zituen 1980an, eta %80 emakumezkoak ziren. Lan baldintza kaskarrak izaten jarraitzen zuten, eta sindikatuek ez zuten presentziarik bertan.

Sindikatu enpresariak, ordea, ez zuten langileen antolakuntza gelditu. Horrela gogoratzen du Rosik: "Oso borrokalariak ginen, lan baldintzak negargarriak zirelako. Ni lanean hasi nintzenean oraindik ez zegoen sindikatuen presentziarik baina asanbladak egiten genituen oso maiz. Oso argi genuekan gure lanpostuak defendatzeko modu bakarra elkartzea eta borrokatzea zela. Horregatik gaude 'galleterak' izateaz harro, daukagun guztia lortzeko asko borrokatu behar izan dugulako”.

### Ahalduntze eskola

Langile gatazkaren epizentro ez ezik ahalduntze eskola bezala gogoratzen du Rosik Artiacheko lantegi zaharra, nagusiki emakumez osatutako plantillak elkartasun sare izugarria ehundu zuen bertan: "Jakinmin handiko emakumeak ginen oro har, eta



Ugariak izan dira lan gatazkak Artiach gaileta fabrikan, eta emakumeak izan dira beti borroka hauen protagonista eta motore. [aiaraldea.eus](http://aiaraldea.eus), LAB Sindikatua

1983

2019

2021

Uholdeek fabrika hondatu eta Orozkora lekualdatu egin zuten. Langileek 2 hilabeteko itxialdia egin zuten lanpostuen etorkizuna defendatzeko

10 urte baino gehiagok behin-behineko kontratuekin lanean aritutako lau emakume kaleratu zituen Artiachek. Urtebeteko borrokaren ostean kontratu finkoa egin behar izan zien

Azaroaren 22an, 2019tik berriro gabe zegoen lan-hitzarmena "duintzeko" lanuzteak abiatu zituzten Artiacheko langileek

# erreportajea

oso ondo antolatuta geunden”.

Esaterako, euskara klaseak antolatzen zituzten, lanaldia hasi baino ordubete lehenago. Gailtagile askok horrela ikasi zuten euskara. Eskola horietan, garai hartan Artiacheko langilea zen Miren Odriozola ezker abertzaleko militante eta El Salvadorren aritutako brigadista izan zuten irakasle. Liburutegi bat ere atondu zuten, futbol talde bat sortu eta kultura-funts bat

## Euskara klaseak antolatzen zituzten, lanaldia hasi baino ordubete lehenago. Gailtagile askok horrela ikasi zuten euskara

eskuratu. Kultura-funts horrekin enpresak langileen ikasketak ordaintzen zituen. Horrez gain, ginekologia errebisioak ere lortu zituzten langileek Errekaldeko klinikan.

Pabiloi barruan lanean zeuden bitartean asko abesten zutela gogoratzen du Rosik: “1970eko hamarkadan makineria askoz gutxiago zegoen, eskulana zen nagusi eta ez zegoen zaratarik. Horregatik kantuan pasatzen genuen eguna, eta askotan liburuak irakurtzen genizkion elkarri.”

### Orozkora lekualdatzea

1920ko suteak bezala, 1983ko uholdeek eragin zuzena izan zuten fabrikaren azken lekualdatzean. Nerbioiko uren gorakadak kalte handiak eragin zituen gaileten faktorian, eta enpresa beste nonbaitera mugitzea erabaki zuen zuzendaritzak; “Kontua da ez genekielako nora lekualdatu behar zuten”, gogoratu du Rosik, “zurumuruak zeuden Burgosen, Gasteizen edota Madrilen ezarri nahi zutela fabrika berria”.

Langileei erantzunik eman gabe, zuzendaritzak makineria guztia mugitzeko lanak abiatu zituen. Fabrika barruan itxialdia hasi zuten une horretan langileek, lanpostuen etorkizunaren defentsan. “Ziurgabetasuna erabatekoa zen; fabrika hondatuta zegoen



Gailtagile izateaz “oso harro” dagoela dio Rosi Pinedok. 40 urte baino gehiago eman ditu Artiachen lanean, eta, erretiroa hartzean dagoen arren, bere lankideekin batera ari da lan-hitzan.

eta Artiach sendia kazike hutsak ziren. Bi hilabete egon ginen greban fabrika barruan itxita. Makineriaren lekualdatzea oztopatu genuen horrela, lekualdatze baldintza on batzuk negoziatu arte”.

Azkenean argitu zen misterioa: Artiach gailera fabrika Orozkora lekualdatu behar zuten. Bi hilabeteko borrokari esker enpresa batzordeak eta greba batzordeak oso lekualdatze baldintza onak lortu zituzten. “Jantoki zerbitzua lortu

## “1983an bi hilabetez egon ginen greban, fabrika barruan itxita makinariaren lekualdatzea oztopatuz”

genuen, oraindik ere enpresa behartua dago jantokiko plusa ordaintzera naiz eta jantokirik ez izan. Garraioa ordaintzea ere lortu genuen; gutako asko Bilbotik, meatzaldekatik eta ezker aldeetik joaten ginen Orozkora arte, eta enpresak bidaia denbora ordaindu egiten zigun”, azaldu du Rosik.

1983ko lan gatazkan erdietsitako lan-baldintzen hobekuntza horrek igoera ekarri zien gailera fabrikako behargineei, eta urtez urte lortutako baldintza on horiek

defendatu egin dituzte: “Oso fabrika errentagarria da gurea, eta konpainia askoren eskuetatik igaro da; Mavisco, Royal Brands, Nutrexpia Adam Foods... Erosten gintuen enpresa bakoitzak murrizketak egin nahi izan ditu, aldaketa guzti hoerietan eutsi egin diegu borrokaz lortutako eskubideei”.

### Lan gatazka gehiago

Fabrika barruan Orozkon igarotako denbora guzti honetan oso presente egon da Deustuko Erriberako



## erreportajea



Armen berriaren aldeko mobilizazioetan parte hartzen. Aiaraldea.eus

gailetagileen borroka lekukoa. Dozenaka mobilizazio eta lanuzte egin dituzte: lankideen kaleratzeak gelditzeko, lan-hitzarmenak negoziatzeko, enpresaren salerosketa baten aurrean lan-baldintzak mantentzeko...

Urte guzti hauetan irmotasun berdinarekin defendatu izan dituzte euren lanpostuak, baina Rosik lankide guztien artean bat enfigura nabarmendu nahi izan du: Arantza Murguzur.

2020an zendu zen Arantza, hura ere Deustuko erriberako

langilea izandakoa, bizi oso bat gailera fabrikari lotua: "Konbikzio handiko emakumea zen" gogoratu du Rosik, "beraizan zen 2004an inposatu ziguten eraginkortasun mugatuko lan-hitzarmena sinatu ez zuen bakararra, defendatu genituen lan-baldintzen aurka egiten zuelako" goraiatu du.

#### Behin-behinekotasuna

Prekarietatea ere askotan jarri dute jo puntuan Artiacheko borroka sindikalean: "Enpresa honetan beti egon da behin-

behinekotasun handia, eta guk beti egin dugu borroka lan-baldintza prekarioak Artiachetik ezabatzeko. Ranstad Aldi baterako lanerako enpresa fabrika barruan ditu bulegoak, lotsagarria da".

Hain zuzen ere, behin-behinekotasunaren aurkako borrokak piztu zuen Artiacheko azken lan-gatazketako bat: 2019an behin-behineko kontratuak lotuz Artiachen 6 eta 17 urte bitartean lanean egondako lau emakumek lan ikuskaritzan salatu zuten

euren egoera. Ikuskaritzak arrazoia eman zien langileei: fabrika behin-behinekotasun handia zegoela eta enpresak emakumei kontratu mugagabea egin behar zela ondorioztatu zuen. Artiachek, ordea, langile horiek kaleratzea erabaki zuen. LAB sindikatuak gogor gaitzetsi zuen enpresaren jarrera, eta urtebeteko borroka luze eta gogorra abiatu zuten kaleratutako lau langileek.

Borrokak fruituak eman zituen, eta enpresak kontratu finkoa egin zien azkenean.

#### Aurrera begira

Azaroaren 22an piztu zen azken lan-gatazka Artiachen. LAB, ELA eta ESK sindikatuek lanuzteak abiatu zituzten 2019tik berritu gabe dagoen lan-hitzarmena "duintzea" helburu. 80 egun baino gehiago daramate borrokan, azken hiru urtetan 20 milioi euroko irabaziak lortu eta langileen lan-baldintzak hobetzeari uko egiten dion enpresaren aurka. Urrundago gatazkaren amaiera baina historiaren indarra daramate gainean gailetagileek.

# herriz herri

## Laudio

Elkarretaratze jendetsua egin zuten larunbatean Laudion Euskalgintza Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, hizkuntza eskakizunen gaineko epaiak salatzen. Epaiileek “euskararen aurkako oldarraldia” abiatu dutela adierazi dute, eta horren aurrean batasunez erantzuteko deia luzatu diote euskal komunitateari.

# Elkarretaratze jendetsua Laudion, “euskararen aurkako oldarraldiaren” kontra



Jendetza mobilizatu zen larunbatean Euskalgintza Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak deituta. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Soka luzea ekarri du iragan otsailaren 1ean Alea komunikabideak argitaratutako albisteak: epaile batek euskara "zaila" dela argudiatu du Laudion Udako hizkuntza eskakizun bat saihesteko. Euskalgintza Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak elkarretaratzea egin zuten larunbatean Laudion Herriko Plazan, epaiari erantzun irmoa emanez.

Paul Bilbao Euskalgintza Kontseiluko idazkari nagusiak salatu zuen hizkuntza politika berria epaien bidez ezarri nahi dutela. Bilbaoren aburuz, botere judiziala hizkuntza politika "nahieran" arautzen hasi da jurisprudentzia bilatzeko asmoz:

"epaileek oldarraldia hasi dute euskararen kontra eta beharrezkoa da modu bateratuan erantzutea".

Bide beretik jo zuen Christian Alemany Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideak, eta euskararen aurkako horrelako erasoak gertatzen diren aldiro kalera ateratzeko deia luzatu zuen.

### Epai arriskutsua

Ana Maria Martinez Navas Gasteizko 3. epaitegiko epaileak 2020ko hizkuntza eskakizuna ez betetzeagatik kaleratutako udaleko funtzionarioaren alde egin zuen, euskara munduko 5. hizkuntza zailena dela argudiatuta. Gaiaz galdetuta, argudioak Interneteko webgune batek kopia zuten hitzez hitz. Aurrekari "oso arriskutsutzat" jo zuen

Laudioko Udalak jasotako aurkako epaia Kike Amonarriz soziolinguistak, eta horrelako kasu gehiago etorririko direla iragarri zion Aiaraldea Komunikabideari eskainitako elkarrizketan.

Administrazioak euskalduntzearen aldeko aldarria ezabaldutako Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak. "Lanpostu publiko baterako baliatzen diren irizpide guztiak dira diskriminatzaileak, irizpideak berez diskriminatzaileak direlako. Baina irizpide guztiak dute helburu bat: ahalik eta langile egokiena hautatzea administrazioan ahalik eta zerbitzu publiko onena eskaini ahal izateko". Horri lotuta, "hizkuntza supremasizatzen" jo dugu euskara administrazioan beharrezkoa ez dela dioten iritzia.

### Erreakzio gehiago

LAB sindikatua ere epaiaren aurka azaldu da, eta euskararen aurka gorrotoa leporatu dio Martinez Navas epaileari. Sindikatu abertzalearen iritziz, epaiak agerian uzten du euskararen normalizazioaren kalte gertatzen ari den inboluzioa, eta ezinbestekotzat jo dugu euskara babesteko akordio zabalak eta berezko legeak.

Ander Añibarro alkateak ere iragarri zuen Laudion Udalak epaiaren aurkako helegitea aurkeztuko duela.

Gaia Europako batzordera ere iritsiko da Izaskun Bilbao eurodiputatu jeltzalearen eskutik. Bere ustez, epai hori "goragoko instantzietan" baliogabetuko dute, hizkuntza eskakizuna betetzera iristen diren

gainontzeko langileen eskubideak urratzen dituelako. Hala ere, fokua beste kontu batean jarri du Bilbaok: euskara "munduko bost hizkuntza zailenen artean" dagoenaren ustean, epaiak hori argudiatzen zuelako.

Epaiak "euskara ikasi duten eta aukeraketa prozesu guztiak gainditu dituzten milaka pertsonen eskubideak" urratzen ditu, Bilbaoren aburuz. Horri lotuta, EAJko ordezkariak nabarmendu du hizkuntza zailazitea ez dela inoiz eragozpena izan. Horrez gain, eurodiputatuak salatu du Gasteizko epailearen erabakiak "elebitasunaren gaineko oinarrizko kontsentsuak hankaz gora" jartzen dituela, eta gaineratu du gertatutakoa "arbitrariorotasun ariketa arriskutsua" dela.

## Artziniega

## Arteko landako tabernaren kudeaketa esleitu dute, bi urterako



2019an berritu zuten taberna. Aiaraldea.eus

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Otsaila hasieran sinatu zuen Artziniegako Udalak alokairu kontratua Arteko landako taberna kudeatuko duen pertsonarekin. Joseba Vivanco pozik azaldu da esleipenarekin, "legealdi honetako helburuetako bat" zelako. "Urte asko zeramatzan tabernak itxita. 2021ean ireki genuen hilabete batzuetan eta, izan zuen arrakasta ikusirik, beste bi urtez esleitzea erabaki dugu", azaldu du alkateak.

### Obrak zelaian

Vivancok gogorarazi du abenduan amaitu zituztela

zelaian dauden bi komunetako bat berritzeko obrak. Irisgarritasuna ere hobetu zuten, bertan zegoen koska kenduta.

Orain, aldiz, beste komuna atondu nahi dute, tabernako sabaiarekin batera. Argiteria jarri nahi dute establezimenduaren kanpoaldean. Epemuga ere zehaztu dute: uda baino lehen amaitu nahi dituzte lan guztiak.

Horrez gain, panel batzuk ere jarriko dituzte, zelaian dauden zehaztutako buruzko informazioarekin. "Jardue-ra guzti hauekin balioan jarri nahi dugu gune pribilegiatu hau, Artziniegako bizilagunei zein bisitariei begira", zehaztu du alkateak.

## Arrankudiaga-Zollo

## Auto elektrikoak kargatzeko puntua martxan dago jadanik



Jadanik martxa dago azpiegitura. Arrankudiaga-Zolloko Udala

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Urtarrileko azken astetik abian dago auto elektrikoak kargatzeko puntua. Zehazki, astelehenean dago martxan eta Nerbioi-Ibaizabalen instalatutako lehena da. Bere kokapena Zuloaga auzunean dago, Xarman-ta tabernako aparkalekuan. Hor kokatzea erabaki zuten autopistatik hurbil dagoelako eta erabiltzaileek bertan dituztelako bestelako zerbitzuak; jatetxea, supermerkatua eta umeentzako jolas parkea.

Azpiegiturak mota guztietako ibilgailu elektrikoak hor-

**Arin kargatzeko aukera eskaintzen die ibilaldi luzeak egiteko prestaturik dauden ibilgailuei**

nitzeko balio du, baina horniketara era azkarrean egiteko aukera emango die ibilaldi luzeak egiteko prestaturik daudenei. Hain zuzen, 50 kW-ra arteko potentzia duten ibilgailuak ordu erdi baino gutxiago baliatuta kargatu ahaliko dira. Aldi berean bi autok aldi berean egin dezakete hori eta beharrezkoa da 'Recarga Publica APP' izatea.

Berez, Iberdrolak eta Arrankudiaga-Zolloko Udalak akordioa sinatu zuten 2020ko irailean proiektua egikaritzeko eta ia zko azarorako prest zegoen dagoeneko, Industria Saileko baimena baino ez zuen behar funtzionatzen hasteko.

# BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan  
24 orduz izango duzu gure zerbitzua.  
**Salbuespenik gabe.**



bertako  
igogailuak | ascensores

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)



ZULORA JAUSITAKO  
OBJEKTUAK  
BERRESKURATZEA



HARRAPATZE  
EGOERAK



IGOGAILUKO  
ZARATAK



365/24/7

**ARABA**  
945 712 822  
**GIPUZKOA**  
943 903 450

**BIZKAIA**  
946 523 935  
**NAFARROA**  
848 870 917

# herriz herri

## Amurrio

# Osasun zentroko profesionalak eta Amurrioko pertsona nagusiak aurrez aurre



Topaketa hauek maiztasunez egiteko asmoa dute Amurrioko nagusiek eta osasun zentroko langileek. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Amurrioko Antzokian elkar-tu ziren iragan otsailaren 3an herriko pertsona nagusiak eta osasun zentroko profesionalak Amurrioko Pertsona Nagusien Kontseiluak antolatutako topaketan. Hitzorduak lehen arretak gaur egun bizi duen egoera mahai-gaineratzea eta pertsona nagusien kezak argitzea zuen helburu.

### Pandemiari aurre eginez

Amurrioko Osasun Zentroko langilek hartu zutne hitza aurrea. Udalerriko anbulatorioa eta osasun sistema publikoa nola egituratuta dagoen azaldu zuten. Amurrioko zentroak Amurrio, Aiara, Artziniega eta Urduñako herritarren artean dituen 19.000 lagun baino gehiago orotara. Herritar guzti horiei arreta eskaintzeko 11 familia medikuk, 3 pediatrek, 15 erizain eta erizainlaguntzailek, 2 emaginek eta 8 administra-

rik osatzen dute Aiarako Osasun Unitatea deritzona. Pandemia garaian administrari laguntzaile baten eta 4 erizain eta erizain laguntzailearen erreferentzia izan dute.

Lehen pertsonan kontatu zuten osasun langileek 2020ko martxotik gaur egunera arte bizitako esperientzia. Hasieran ezjakintasunak markatutako egoera izan zela nabarmendu dute. Bi urteren ostean, aldiz, nekatuta daudela aitortu zieten Amurrio Antzokian elkartutakoek.

Indarrean dauden protokoloak ere aletu zituzten. Unean une aldatu egin dira jarraibide horiek, eta hasieran nahasmena sortzen bazen ere, egoera aldakorrera ohitu egin direla adierazi zuten osasun langileek. Besteak beste, arreta presentziala mailakatu egin dutela azaldu zuten, anbulatorioko itxarongeletan jende pilaketak ekiditeko asmoz.

Kontsulta telefonikoek ere nabarmen egin dute gora azken

bi urte hauetan: 2019an 19.609 izan ziren telefono bidezko kontsultak, 2020an 63.814 kontsultara igo zen kopurua eta ia 59.168 telefono deietan mantendu zen.

### Pertsona nagusien kezak

Antzokian elkartutako pertsona nagusiek ere izan zuten euren kezak, zalantzak eta ekarpenak osasun langileekin elkartrukatzeko aukera. Lan burokratiko asko pazienteen esku geratu izana kritikatu zuten, besteak beste. Izan ere, pertsona nagusi askok zailtasunak dituzte Internet bidez moldatzeko.

Osakidetzako lehen arretan dagoen gainkarga ere azalera-tu zen saioan. Gainkarga hori pandemia baino lehen bazegoela azpimarratu zuten osasun langileek, COVID-19ak areagotu besterik ez du egin. Azken urtean lan karga %50 handitu dute, eta horrek eragin zuzena du pazienteengan zein osasun profesionalengan.

# Nagusilan Amurriok jasoko du Urrezko Guk Saria aurtan

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Nagusilan Amurrio adinekoen gizarte-boluntariotzako kideek jasoko dute Urrezko Guk Saria aurtan. Martxoaren 19an egingo da aitortza ekitaldia, Amurrio Antzokian, COVID-19aren aurkako segurtasun neurri guztiak beteta.

Aho batez erabaki dute saria Nagusilan Amurrioko kideei ematea, "bakardadearen aurka" eginiko borrokatik eta "zahartze aktiboaren alde" eginiko lanetatik.

### Boluntario eta solidarioak

Udalak nabarmendu du talde hori oso errotua dagoela herrian. "Gaur egun 25 boluntariok, 17 emakumek eta 8 gizonek, osatzen dute", zehaztu du tokiko erakundeak, "Tal-de honen helburua da nahi ez

den bakardade-egoeran dauden adinekoen beharrezko sozialari eta afektibo erantzutea, borondatezko laguntza bidez. Era berean, zahartze aktiboa eta solidarioa sustatzen dute, betiere jardura desinteresatuen bidez".

Hainbat talde eta norbanakoren artean sortu zuten egitasmoa, udalerriko pertsona nagusien beharrezkoen "erantzun koordinatua" emateko.

Txerra Molinuevo alkateak azaldu du Nagusilanek bat egiten duela Udalak sustatzen dituen gizarte balioekin, eta horregatik merezi dutela saria. "Euren denbora besteei laguntzen ematen duten pertsona boluntarioek eta solidarioek amurriarren aitortza merezi dute", nabarmendu du gobernuburuak.

Martxoaren 19an egingo da saria emateko ekitaldia, Amurrio Antzokian.

## Urduña

# Kantuan eta eskean atera dira Urduñako kintoak

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Urtero bezala, kalera atera ziren iragan otsailaren 5ean Urduñako kintoak. Foru Plazan el-

kartu ostean, hirian zehar aritu ziren kantu eta eskean 2004. urtean jaiotako gazte urduñarrak. Martxoan antolatuko dute kintoen jaiak, eta egitaraua prestatzen ari dira.



Foru Plazan elkartu ziren Urduñako kintoak. **Antonio Muñoz**



## Orozko

# Ibarrara bertaratzeko deia egin du 'SOS Aiaraidea' plataformak



Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean mobilizatu dira grebalariek. Aiaraidea.eus

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Urtarrilaren 28an hasi zuten bost eguneko greba Ibarrako Madres Mercedarias egoitzako langileek zentroko kudeatzaile Aliados Fundazioak ezarritako "murrizketa larri" aurre egiteko. Murrizketa horiek lan-baldintzen okertzea eragin dute: lanaldia handitu, jaiegun gehiagotan lan egin eta KPIaren goera itundua ezabatu da.

Bizkaiko Foru Aldundian interpelatzen ari dira zuzenean, hori dela eta iragan otsailaren 4an Bilbon mobilizatu ziren grebalariek. Hain zuzen ere, Foru Erakundea da Ibarrako zerbitzu publikoaren titularrak eta, hitzarmen bidez, Madres Mercedarias kongregazio erlijiosoaren eta Aliados Fundazioaren esku utzi du honen kudeaketa.

Horregatik, Sergio Murillo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako diputatua jo dute langileek bizi duten egoeraren erantzule nagusi gisa. Bilboko elkarretaratzean bilera eskatu zuten Foru Diputatuarekin, egoera bideratzeko asmoz: "Onartezina da gatazka konpontzeko erantzukizuna bere gain ez hartzea".

Iaz ekin zioten Madres Merce-

dariaseko langileek lan baldintzen alde mobilizatzeari. Lanuzte eta mobilizazio ugari egin dituzte azken hilabeteetan, eta elkarlanean aritu dira, besteak beste, Artiaheko langileekin.

## Otsailak 11, Ibarrara

LAB eta ESK sindikatuek deituta ostiral honetan dute Madres Mercedarias egoitzako langileek azken greba eguna. Tubacexeko greba mugagabearen testuinguruan sortutako SOS AIARALDEA plataformak Ibarrara bertaratzeko deia egin du, bertako beharginei elkartasuna adierazteko.

14:00etan hasiko dute grebaren azken elkarretaratzea, eta 16:00ak arte egongo dira egoitzaren aurrean elkartuta. Gero, kotxe karabana egingo dute Orozkora, eta Zuibaiur plazatik manifestazio bateratua egingo dute Ibarrako egoitzako langileek eta Artiach gailera fabrikako beharginek, arratsaldeko 16:30ean.

Mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete herritarrei. Eraberean, gogor kritikatu dituzte baita Eusko Jaurlaritzak ezarritako zerbitzu minimoak: "Eusko Jaurlaritzari exijitzen diogu ez dezala debekatu langileok dugun grebarako eskubidea, gutxieneko zerbitzu gehiegizkoak ezarriz".

## Okondo

# Bost persona kontratatuko ditu Okondoko Udalak

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Bi ekimen ditu Okondoko Udalak esku artean, langabezia dauden pertsonen begira.

Alde batetik, bi persona kontratatuko ditu, 12 hilabetez jardun osoz aritzeko. 45 urte-rik gorako herritarrak izango

dira, langabeziak eragin nabarmena duelako adin horretatik gorako bizilagunengan. Lora-zaintza, bide-mantentze eta ingurumena hobetzeko lanak egingo dituzte bi persona horiek udalerrian.

**Mantentze eta zaintza lanak**  
Bestetik, beste hiru per-

sona kontratatu ditu tokiko erakundeak, Aiaraiko Kuadrillaren Eskualdeko Enplegu Planaren bidez. Sartu Arabaren bidez egin dute hautaketa prozesua. Hiru herritar horiek sei hilabetez egongo dira lanean, jardun osoz, udalerriko azpiegituren mantentze eta zaintza lanetan.

**m**  
Mondragon  
Unibertsitatea

**Gure ikasleen ahotan**

*"Metodologia dinamikoa da, eta profesionaltasuna eta diziplina lantzen dira"*

ADRIÁN LAUZURICA SAEZ DE ARGANDOÑA (GASTEIZ, 22 URTE) MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZA ARTEETAN GRADUATU BERRIA DA.

**Non egin dituzu orain arteko ikasketak?**

Oinarrizko ikasketak eta Batxilergo sozio-ekonomikoa Gasteizko Corazonistas egin nituen. Nire zaletasunak sukaldaritzarekin zertikusia dute. Eta aisialdiko begiralea naiz.

**Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua?**

Basque Culinary Center-eko zientzia gastronomikoen gradua aukeratu nuen euskal gastronomiatik abiatuta, nazioarteko gastronomian espezializatzeko aukera ematen dizulako.

**Zer nolako esperientzia izan da?**

Horrelako zerbaitetan espezializatzea esperientzia onenetako bat da; kontzeptu berriak ikasteaz gain, praktikan ere jar ditzakezu.

**Nola definituko zenuke Basque Culinary Centerreko metodologia?**

Metodologia dinamikoa da, eta profesionaltasuna eta diziplina lantzen dira. Horrek gure emaitzekiko kritikoak izatera garamatza. Bada



lan zati bat ikasgeletan, non gastronomiaren alde teorikoa eta zientifikoa ikasten dugun. Ondoren, sukaldeetan, gure sukaldaritza-trebetasunak praktikan jartzen dugu.

**Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Maila pertsonaleko prestasuna da gustatzen zaidan gauzetako bat. Ikasgeletan eta sukaldeetan ikasteaz gain, ikasle askok beren kabuz gustuko dituzten gastronomia gaiak ikertzea erabakitzen dute, nire kasuan Japoniako gastronomiako errezetarikertu ditut. Gainera, irakasleak ere asko inplikatu dira. Unibertsitatean hobetu nahiko nukeen alderdietako bat, maila desberdinetako ikasleekin lan egi-

teko aukera litzateke.

**Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak?**

Jatetxe edo enpresa batean lan egiten duzun esperientziatik trebatzen eta ikasten laguntzeaz gain, lan egitea gustatuko litzazukeen ideia bat izango duzu edo zure etorkizuna nola bideratzen laguntzen dizu.

**Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Gastronomiari buruz nutrizio-mailan ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake, baina, era berean, jatetxe batean lan egiteko aukera izatea eta jantokiaren ardurak izatea amesten dut. Asko erakartzen nauen beste irtenbide profesional bat ostalaritza-eskola batean irakasle izatea da.

# herriz herri

Aiaraldea

## Energia berriztagarriak jartzeko aukerak aztertu ditu Udalbiltzak

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Udalbiltzak sustatuta, eskualdeko energia kontsumoa ikertu eta aukera berriztagarriak ezartzeko aukerak aurkeztu dituzte.

Duela bi urte abiatu zuten ikerketa Aiaraldeko energia kontsumoa aztertzeko. Helburua, ener-

gia berriztagarriak eta ekonomikoki zein ingurumen aldetik jasagarriak izan daitezkeenak identifikatzea da. Atzo aurkeztu zuten egitasmoa Arakaldoko Udaletxean.

Udalbiltzak sustatuta, eskualdeko energia kontsumoa ikertu eta aukera berriztagarriak ezartzeko aukerak aurkeztu dituzte.

Duela bi urte abiatu zuten ikerketa Aiaraldeko energia kontsumoa aztertzeko. Helburua, energia berriztagarriak eta ekonomikoki zein ingurumen aldetik jasagarriak izan daitezkeenak identifikatzea da. Atzo aurkeztu zuten egitasmoa Arakaldoko Udaletxean.

**Erreportajea osorik: Aiaraldea.eus atarian irakurgai**

## EH Bilduk C3 linearen egoera salatu du, eta mobilizazioak iragarri ditu



Agerraldia egin zuten Urduñako tren geltokiaren aurrean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Agerraldia egin dute Aiaraldeko eta Hego Uribeko EH Bilduko ordezkariak Urduñako tren geltokiaren aurrean, Renferen C3 linearen egoera salatzeko. Koalizio abertzalearen esanetan, 2020. urtetik zerbitzuaren kalitateak nabarmen egin du okerrera, eta tren-zerbitzuak etengabe ezabatuak izan dira. Atzerapenak dandenean edota tren-zerbitzuak bertan behera geratzen direnean, erabiltzaileek abisua Renferen Twitter kontutik jaso behar dutela kritikatu du Iruñe Iturbe Amurrioko zinegotziak; "denbora-tarte gutxiarekin, erabiltzaileei eragozpen eta arazo ugari sortuz".

EH Bilduk salaketa ugari egin ditu gaiaren inguruan azken urteetan; 2020ko udazkenean udaletan eta Madrilgo Senatuan mozioak aurkeztu zituen, besteak beste. Idurre Bideguren EH Bilduko senatariak gaiari buruzko hainbat galdera egin zizkion ere Espainiako Gobernuari, eta honen arazorik ez zegoela erantzun zion.

**Mozioak udaletan**

EH Bilduk mozioak aur-

keztuko ditu berriro ere Aiaraldeko eta Hego Uribeko udaletan. "Gidari berrien kontratazioarekin bazirudien egoera hobetu zela baina, gure harri-durarako, zerbitzuak txarrera egin du azken hilabeteetan" azaldu Itziar Biguri Urduñako alkateak.

Mozioen bidez bi eskari egin nahi dizkiete Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioari eta Renferi: Pandemiaren aurretik zeuden tren bidezko zirkulazioaren ordutegiak eta kopurua berrezartzea, eta Arabako eta Bizkaiko aldirietako C3 linean herritarren premiekin bat datorren tren-zerbitzu lehiakorra bermatzea.

**Mobilizazioak**

EH Bilduk mobilizazioak deitu ditu datorren otsailaren 16an, "kalitatezko tren-zerbitzu baten alde". Elkarretaratzeak Audio, Amurrio eta Urduñako tren geltokiaren aurrean egingo dituzte, arratsaldeko 18:30ean.

"Trenbideko garraio publiko beharrezkoa da gure lurraldea lotzeko eta artikulatzeko, eta Arabak, Bizkaia bezala aldiriko trena behar du, bai eskualdeen artean, bai hiriburuekin lotzen jarraitzeko", defendatu du Bigurik.

INAUTERIAK

NEON  
glow jaia

OTSAILAK 26, ZAPATUA  
18:00 • FAKTORIAN

MUSIKA, TIK-TOK, PHOTOCALL-A,  
JOLASAK, ALKOHOLIK GABEKO KOKTELAK,  
ZOKKETAK, NEON-BODY PAINT

10-16 urteko gazteak

Bazkideentzako DOAKOA  
Ez-bazkideentzako 3€



## Aiaraldea

# Martxoaren 4ra arte luzatuko dituzte Tubos Reunidoseko lanuzteak, langileen erosmen ahalmena handitzeko



Lanuzteetako batean parte hartzen ari diren beharginak, Lan Erreformaren aurka eginiko argazki batean. ESK

Testua  
**Txabi Alvarado bañares**

Mobilizazioek ez dute etenik izango Tubos Reunidos enpresan. Ordubeteko lanuzteak egiteari ekin zioten urtarrilaren amaieran. Ostegun honetara arte iraungo zuen protestak, baina dinamika martxoaren 4ra arte luzatzea erabaki dute sindikatuek, enpresak erantzun positiborik eman ez duela argudiatuta.

Zuzendaritzak gutun bat bidali zien langileen ordezkariari iragan astean, eskaintza bat mahai gainean jarri. Enpresak onartu egin zuen lan hitzarmena iraungita dagoen urtetik (2017tik aurrera) Kontsumo Prezio Indizearen igoerak langileen erosmen ahalmenean eragina izan duela, eta prest agertu zen KPIaren igoera hori ordaintzeko, 2017 urtetik 2020 urtera. Baina, sindikatuek nabarmendu dutenez, zuzenda-

ritzak uko egin dio 2021ean egondako igoera ere ordaintzeari, urte hori jada igarota dagoen arren. Tubos Reunidoseko buruen aburuz, 2021eko balizko igoera hori "geroago" negoziatu beharko litzateke, behin akordioa sinatuta.

Sindikatuaren ustez, "marra gorria" zeharkatzen du proposamen horrek. ELA, LAB eta ESK sindikatuek oharrak plazaratu dituzte zuzendaritzaren gutuna kritikatu eta KPIaren igoera 2021an ere aplikatu beharko litzatekeela aldarrikatzeko.

ELA sindikatuak "argi" utzi nahi izan du ez duela onartuko KPIaren igoera hitzarmen berri bat izateko "truke txanpo gisa" erabiltzea. "Zuzendaritzak uko egin zion iaz akordio bat ixteari, eta horrek eragiten du 2021eko atzerapenak ere gehitzea, 2017-2020 aldikoekin batera. Horiek dira bere negoziazio estrategia nergargarriaren ondorioak".

LABi "erabat arduragabea" iruditu zaio enpresaren jokatzeko modua. Sindikatuaren aburuz,

enpresak ez du 2021ko KPIaren igoera onartu nahi iaz indize horretan egon zen igoera aurreko urteetako baino nabarmen handiago delako (%6,4). Hala ere, "arazoak areagotu" egingo direla uste du LABek, aurtengo igoera ere antzekoa izango dela aurreikusten delako.

Antzeko irakurketa plazaratu du ESK sindikatuak, eta nabarmendu du langileek ez diotela enpresari ezer zor, "sakrifizio asko" egin dituztelako jada lan hitzarmena berri gabe egon den urteetan. "Gugatik izango balitz askoz gehiago borrokatuko genuke, baina adostasunaren alde egin dugu, alde guztiek amore emanaz, eta uste dugu hori gutxi baloratzen ari dela".

### Jarraipena, "ia erabatekoa"

Horregatik guztiatik erabaki dute sindikatuek lanuzteekin jarraitzea. Nabarmendu dutenez, lanuzteen jarraipena "ia erabatekoa" izaten ari da, eta enpresak aitortu egin du mobilizazio horiek mina egiten ari diotela ekonomikoki.

## Aiara

# Bizikletak mantendu eta konpontzeko bi toki berri daude Aiara

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Bizikletak mantendu eta konpontzeko guneak prestatu ditu Aiara Udalak Luiaiondon eta Arespalditzan. 'Bizi-puntu' izena jarri diete espazioei, eta txirrindulariek ohikoan behar dituzten tresnekin hornitu dituzte, gurpilak puzteko ponpak tartean. Ur-sarrera konektatuta daude gainera, bizikletak garbitu ahal izateko.

Horrez gain, beste tresna hauek ere dituzte guneek: bihurkinak, giltza ingelesa, giltza finkoa, giltza txikiak eta pneumatikoen estalkiak desmuntatzeko eta muntatzeko beha-

rezkoak diren beste tresna batzuk.

Luiaiondoko puntua pista estaliaren alboan jarri dute. Tokiko erakundeak azaldu duenez, URA agentziarekin harremanetan jarri behar izan dira horretarako, lekua errekatik gertu dagoelako.

Arespalditzako espazioa, aldiz, Emakumeen Gelaren ondoko parkean kokatu dute.

### Erabilera libre eta doakoa

Bi guneen erabilera erabat libre eta doakoa izango da. Aiara bizilagunen artean "bizimodu osasungarria" sustatzea da txokoen helburu nagusia, Gentza Alamillo Udaeta alkateak zehaztu duenez.

# Añeseko Administrazio Batzarra baikor agertu da horma-irudien zaharberitzearekin



Margoak eta eraikinak berak kalte ugari dituzte. Restaura Araba

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Urratsak egin dituzte Añeseko San Sebastian basilizako horma-pinturak konpontzeko. Hala azaldu dio Añeseko Administrazio Batzarreko presidente Francisco Menoyo Uzquianok Aiara Komunikabideari: "Proiektua egin da Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin, guk ez baitugu bitartekorik horrelako konponketak ordaintzeko. Orain, diru-laguntzen beste lerro ba-

tean aurkeztu dugu proiektua". Menoyo baikorra da eta uste du aldundiak egitasmoa onartuko duela. Hala ere, zuhurtasunez jokatu eta aipatu du: "Diru kopurua sinatuta egon arte, ezin dugu ezer ziurtzat jo".

Arabako zaharberrikuntza zerbitzuaren twitter kontuak adierazitakoaren arabera, margo horiek jatorri herrikoia dute eta XIX. mendean egin ziren. Antza, hezetasunetik kalte dituzte, eraikinaren kanpoko aldean agertutako landareen ondorioz sortutakoak.

# elkarrizketa

## “Erraldoien aurkako borroka da sexu heziketarena, mito guztiak oso barneratuta daude”

**DIANA IBARGUTXI ABARRATEGI** (LAUDIO, 1983) SEXOLOGIAN ETA PSIKOLOGIAN ADITUA DA. SEXU HEZIKETA ESKOLAK GIDATZEN DITU HAUR, HELDU ETA EDADETUEKIN.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya** Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

**Zer da sexu heziketa gaur egun? Zer izan behar-ko litzateke?**

Zoritxarrez, zeharkako gaitzat hartzen da. Lehen Hezkuntzako 3. zikloetan, DBH eta Batxilergoan lantzen da batzuetan, baina nire ustez, hezkuntza Currikulumean egon beharreko gaia da. Ez da nahikoa 4-10 orduko saioak eskaintzea, mezu asko baitaude gizartean deseraiki behar direnak. Horrekin eraikitzen badugu sexu heziketa jendartean, txarto goaz. Sexualitatea hitzarekin ideia jauzia eginez gero geletan, ikasleen erantzuna oso genitalizatua eta praktikan oinarritutakoa da; oso heteroa eta normatiboa. 10 urterekin bortxaketak, pornografia, prostituzioa... bezalako hitzak atera ohi dira.

Benetan zer da? Norbera eta besteak ezagutu zein onartzeko modu bat da sexu heziketa. Sexu heziketa jaso izan dugunoi, beti beldur, mamu edo prebentziotik heldu zaigu: haurdunaldia, indarkeria, hilerokoa... Egun, aldiz, lotsa, beldurra eta nazka nagusitzen dira gazteekin. Esaterako, aluak azaltzerakoan neskek askotan maskarilla begietara eramaten dute.

Nire helburua beti da ikuspegia zabaltzea. Sexualitatea ez da hanken artean duguna, edo gorputzetik egiten duguna; bakoitza nor den baizik. Biografia horretan bakoitza nor garen aurkitzen joan behar gara, bakoitza era errepikaezinean ezagutzen, onartzen eta adierazten.

**Norbere biografian -eta jendartean- sexualitatearen ikasgaia pendiente dago, hortaz?**

Zer da sexua? Bakoitza garena, eta sentitzen dena.

Askotan gazteek ugalketarekin lotzen dute. Sexualitatea noiztik dugun galdetuta, gazteek hilerokoa edo semena fokalizatzen dute, ugalketa. Sexualitatea gorputz guztian dugu, eta azala da gure organorik handiena plazerari dagokionez. Horregatik, beti saiatzen naiz ikuspegia zabaltzen: familia aniztasunena, gorputzena eta edertasun kanonena... Mito eta erresistentzia asko daude deseraikitzeke. Adibidez, mitoen eraikuntza telebistari begira prestatzen dut: La isla de las tentaciones piztuta pozo guztia daukazu lantzeko ontzi txiki batean; heteroaraua, jeloskortasuna eredu moduan, kontrola...

Neska heteroek askotan diote mutil jeloskorra nahi dituztela, 'horrela maite nautela demostratuko dutelako eta nigatik borrokatuko duelako'. Ondorioz, mutilentzako ere geroz eta txikiagoa da kai-

## elkarrizketa



la; eta erresistentzia pila bat dituzte, eta askotan ez dute ezer jakin nahi, gatazka ikusten baitute.

### **Nolako errealitateak ikusten dira jendartean, eta belaunaldi berriengan?**

Orain antisistema izatea, mugimendu ultraeskuindarrak aldarrikatzea dela dirudi. Errealitatea rekin topo egitea oso gogorra da, iaz negarrez ateratzen nintzen klaseetatik. Erraldioen aurkako borroka da sexu heziketarena. Sare sozialetan dena dago klik batean, baina kudeatu gabeko informazioa da. Adibidez, pornoa. Mito guztiak oso barneratuta daude. Mutil gazte batek behin hau esan zidan: 'Aurrekoan neska batekin egon nintzen eta listua bota nion aurpegira gero. Zaplazteko bat eman zidan... baina hori ez al zitzaizuen gustatzen neskei?'. Galdetu diozu? Erantzun nion... Harremanetan 3

arau daude: komunikazioa, errespetua eta adostasuna. Beste era batera esanda, komunikatu egin behar gara, adosten duguna errespetatzeko. Eta zeren bidez? Gorputzak, plazerak eta desirak (beti pluralean, aniztasuna aldarrikatzeko). Eskema hori adostuta badago, ez dago arazorik.

### **Sexualitate estereotipatua da nagusi, beraz...**

Sexualitate oso estereotipatuaz hitz egiten dute gazteen artean: lehen aldiak, himena... Galdera anonimoak jasotzen ditut saioetan, eta jendea oso galduta ikusten dut. Informazio asko dago, baina nork kudeatzen du? Gazteengana euren erregistroekin joan behar duzu, eta erroetara jo, deseraikitze-ko. 'Orain jendea bisexuala da, modan dagoelako' ere entzun izan dut. Instagramen eta sare sozialetan, onartuak eta babestuak izateko edozer egiteko prest

daude gazteak. Sexu heziketaren barruan autoestimua ere asko indartu behar da. Finean, arreta ipini behar da.

Askotan, irakasleak eduki bila ibiltzen dira... baina sinpleagoa da: nola harremantzen gara gure buruarekin, eta besteekin? Oso zaurgarriak gara adin horretan. Esaterako, 'Aniztasuna edertasunean' powerpointean gorputz lodiak jartzen ditut, eta politak diren galdetzen dudanean ezetz diote. Ez dira ohartzen, ordea, oso baldintzatuta daudela. Gazteek uste dute identitatea, orientazioa... erabaki egiten dutela; baina ez da hala, eta arriskutsua da pentsatzea eta sinestea askeak garela horretan ere.

**“Ez badira betetzen komunikazioa, errespetua eta adostasuna ez da sexu harremana, botere-harremana baizik”**

**Klik batean sexu heziketarako baliabide asko daude eskura. Hori zer da, mesedegarria ala erresistentziak areagotzen ditu?**

Mesedegarria izan daiteke, informazio hori kudeatzen bada. Ez dago baliabide txarrik, erabilera txarra baizik. Nik guraso saioetan askotan esaten diet alaba-seei galdetzeko edo hari horietatik tiratzeko: Zer pentsatzen duzu? Zer iruditzen zaizu?... Bestela, ikusten dutena egi moduan barneratzen dute.

**Zein ekarpen egin dezakete heziketan bidelagun diren senide edo lagunek?**

Ezinezkoa da sexu heziketarik ez egitea. Ekografian genitala zehazten dutenean makinaria guztia hasten da martxan. Isiltasunarekin ere berdin: ez badugu gaia lantzen isiltasunak tabua edo deserosotasuna sendotzen du... Eta, orduan, umeak ez du zugana joko: badaki gai horretan -edo bere buruarengan- zerbait txarto dagoela. Nola eragin orduan? Jantzien bidez, jostailuekin, begiradekin... Denaren

# elkarrizketa

bidez egiten da sexu heziketa. Eredu garen heinean, denbora guztian egiten dugu sexu heziketa.

**Plazera eta desira askotan lotzen dira gure buruetan. Sexu harremana eta botere harremana ez.**

Nik desirak eta fantasiak bereiziko nituzke. Fantasiak agian ez dira desira bilakatzen errealitatean gero. Ezetza eta baietza txikitu egin behar dira: ez, baina zer ez? Ez momentu honetan... Ez ditugu baietzean hezten umeak, gazteak ez helduak. Ezeztzean geratu gara, mugetan, aukerak zabaldu ordez.

Desiratzen duzunak plazera eragin diezazuke, baina gerta daiteke ezetz ere. Eta, horrek, frustrazioa

sortzen du. Fantasiak eta desirak beti dira pluralak (eta anitzak).

*Soy ordinaria* bideoa oso ondo dago hori identifikatzeko (bortxaketa bat da, baina asko kostatzen zaie ikustea bikote heteroa izanik indarkeria dela ohartzea). Ez badira betetzen komunikazioa, errespetua eta adostasuna ez da sexu harremana, botere-harremana baizik. Sexu heziketa zerbitzu integrala izan behar da, irakasleekin, ikasleekin eta familiekin landu behar dena.

**Familia testuinguruan, zergatik dago hainbeste tabu?**

Askotan pentsatzen dute, sexualitateari buruz

aritzean, kamasutra azalduko dugula. 40-45 urteko jendea oso gaizki dago, zentzu horretan. 'Nire umeak ez du pornoa ikusten, oso infantila da', hori da betiko esaldia. Mitoak eta erresistentziak asko dira: sexualitatea genitalekin egiten duguna dela, heteroaraua (estereotipoetan oinarritzen dute identitatea, sexu orientazioa...), gorputz mota batzuk bakarrik eskura dezaketela plazera... Dena da oso bitarra, eta binarismo hori apurtu behar da. Eta erresistentziak, beste hainbeste.

**Zergatik ditugu horrenbeste erresistentzia, bada?**

Nik beti pentsatzen dut ez dugula antzeztu behar: sexuaren inguruan naturaltasunez hitz egin eta



jokatu behar da, baina bakoitzak bere naturaltasuna du, eta horretarako bakoitzak bere zauriak edo hutsuneak ezagutu behar ditu.

Oinarrian zu zaren pertsona dago, eta horrekin borrokatzea zaila da, zure barneko gatazkan sartzen baitzara. Familien kasuan, adibidez, beldur asko nabaritzen dut: pandoraren kutxa zabalduko dutela uste dute.

#### **Beldurrez bizi dute sexua familiek?**

Umeek eta gazteek, sexualitateari buruzko informazioa berez eskuratzen dute. Guraso batzuek, adituengana jotzeko joera dute: sexologo edo psikologora. Ondo dago delegatzea, baina komunitate gisa denok gara eragile eta eredu. Orokorrean, gazteek diote etxean edota bizikideekin ez dutela sexuaz hitz egiten.

#### **Helduek ere sexu heziketa lantzeko premia dugu, beraz.**

Bai, helduek ez dakite zer den sexu heziketa. Irakasleekin, esaterako, formakuntzak egiten ditudanean, euren helburua umeak ikasgelan zelan egon diren jakitea izaten da. Bakoitzaren sexualitatearekiko posizioaren jabe izatea garrantzitsua da haurrak lagundu ahal izateko. Familiekin, aldiz, desberdina da: sexualitatean zer landuko duten badakite, eta sexu heziketa murrizta jaso izana aitortzen dute, prebentzioa soilik. Aniztasun funtzionala duten familien kasuan bestelakoa da egoera, baita beldurra ere. Eta, hein batean, ulergarria da.

#### **Aniztasun funtzionala duten emakumeen jarrera bestelakoa dela diozu. Zer ba?**

Antisorgailuak dituzte guztiek aldean, eta ez dakite zergatik, inork ez dielako azaldu. Niri, behin, emakume batek horrela esan zidan: "hau ni haurdun

## **“Sexualitatea ez da hanken artean duguna, edo gorputzetik egiten duguna; bakoitza nor den baizik”**

ez geratzeko da”. Non geratzen da bere erabakia? Kasu hauetan badira beldurrak –bortxaketak ere egon izan dira-, baina erabakiak eurek ere hartu ditzakete, eta ez zaie uzten. Beste behin, hilerokoa etorri zitzaion neska bati, eta oso oldarkor jarri zen ez zuelako ulertzen odoletan egonik zergatik ez zihoan ospitalera.

#### **Zer egin daiteke kasu horietan heziketa askatzailea errazteko?**

Azalpenak beharrezkoak dira: baliabide eta informazio gehiago behar dituzte euren desirak ulertzeko. Beste mito bat beti sexualki aktibo daudenarena da...

Gogorra da egunerokoan hezitzaile gisa hori dena ikustea. Pertsona batzuk, beste gorputz baten laguntza behar dute plazera sentitzeko, beste esku bat. Suitzan, adibidez, legezkoa da sexu asistentzia (hemen alegala da).

Zentzu horretan, oso ona da Yes we fuck dokumentala. Sexu heziketa egiteko 3 jarrera daude: debekatzailea, baimentzailea eta hazkunde jarrera. Egun, jarrera debekatzailetik beste muturrera pasa gara. Denak ez du balio. Esperientzia guztiak ez dira izan behar zoriontsu izateko. Askotan, jendeak arazoak ikusten ditu ez dauden tokian.

#### **Presioarekin bizi da sexu heziketa, oro har?**

Baldintzatua badago, eta ikuspegia murriztailea bada, bai. Ezagutu, onartu eta adieraziz gero, ez. Kasu horietan presioa jaisten da, baina askotan ostrukarena egiten da; edota zerbait gertatzen denean soilik esku hartu (eta horrelakoetan, gehienetan, prebentziotik). Sexu heziketa onuraduna egiten bada, ez da horretara mugatu behar. Gela guztietan galdetzen didate: "Eta erakutsiko diguzu kondoia jartzen?". Sexualitatearen bizkarrezurra ez da sexua.





## Kaotiko, Sonic Trash, Mosh, Izatefaltsua...

# Burubio astim�eko prest

Ohikoan baino beranduago hasi dute urtea Burubio Kultur Elkarteko kideek. Lana izan dute hurrengo hilabeteetako kontzertuak programatzeko, pandemiaren bilakaerak datak atzeratu eta birkokatzera derrigortu baititu.

Hala ere, indartsu ekingo diote 2022ko lehen txanpari, hiru zita esanguratsurekin. Otsailaren 25ean izango da lehena. Rock doinuak nagusituko dira gau horretan, Sonic

Trash eta Seda taldeen eskutik. Ateak 22:00etan irekiko dira eta ordu erdi beranduago hasiko da emanaldia. Sarrerek; 8 euro balioko dute aurrez erosita edo bazkidea izanda, eta 10 euro takilan eskuratuta.

Bihar amunean (hilak 26) izango da bigarren kontzertu sorta. Hiru izango dira Amurrioko pabilioiko oholtzara igoko diren taldeak: Mosh, Izatefaltsua eta Nukore. 21:30ean

irekiko dira ateak, eta 22:00etan hasiko da zarata. Sarrerak interneten eskuratu daitezke honezkeror.

Martxoaren 11n, aldiz, punk-rock doinuak izango dira nagusi, Kaotiko eta Purapose taldeekin. Ateak 22:00etan irekiko da eta ordu erdi geroago hasiko dira kontzertuak. Sarrerak interneten eskuratu daitezke 12 euroren truke, eta 15 eurotan egunean bertan.

## MUSIKA

**02.12 Larumbata**  
20:30 LAUDIO  
IKER LAUROBA ETA BESTE URTAROAK  
Faktoria

**02.12 Larumbata**  
22:00 LAUDIO  
ANITA PARKER  
Drumgorri aretoa

**02.18 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
LA CASA FANTOM,  
CATASTROFE, IZATE  
FALTSUA ETA FRAKTURE  
Kirikino Aisialdi Taldeak  
egindako basoaren aldeko musika emanaldia  
Orebo Etxea

**02.19 Larumbata**  
19:00 LAUDIO  
ARROTZAK, GURS,  
HELLTZALES, POZOIA ETA  
KIKARTOR  
Orebo Etxea

**02.19 Larumbata**  
20:30 LAUDIO  
OLATU ARTEKO TXALUPA  
ARRAROA  
Kantak eta berbak Ines  
Osinaga eta Joseba  
Sarrionandierekin  
Faktoria

**02.19 Larumbata**  
22:00 LAUDIO  
BELO ETA THE SMOKE  
DEALERS  
Drumgorri

FAMILIA  
JARDUERAK

**02.09 Asteazkena**  
17:30 ARTZINIEGA  
'HERRIXKA' IPUINAREN  
IRAKURKETA  
'ipuin txikiak' egitasmoaren  
barruan  
Liburutegia

**02.12 Larumbata**  
11:00 OROZKO  
MOZORROEKIN JOLASEAN  
2014. urtean jaiotako  
umeentzat  
Gaztetxokoa

**02.12 Larumbata**  
11:00 OROZKO  
ALTXORRAREN BILA  
2015. urtean jaiotako  
umeentzat  
Gaztetxokoa

**02.12 Larumbata**  
10:00 AMURRIO  
BOTANIKA BALIA TUTA  
ESTANPAZIOAK EGITEKO  
TAILERRA  
Susana Corbellak gidatua  
Atelier, Frontoi kalea 10

**02.12 Larumbata**  
10:00 AIARA  
BIODANTZA: ZURE BARNEKO  
ASKATASUNA ASKATZEN  
LAIA Eskolak antolatuta  
Emakumeen gela

**02.14 Astelehena**  
17:00 URDUÑA  
DANTZATERAPIA:  
'CONTACTO CON TACTO'  
Leticia Moralesen eskutik,  
'Mugi zaitez!' programaren  
barruan  
Erretiratuen egoitza

**02.16 Asteazkena**  
15:15 ARTZINIEGA  
PUNTUA HASTEKO  
IKASTAROA  
Kultur Etxea

**02.18 Ostirala**  
11:00 LAUDIO  
ANDROID GAILUA  
ERABILTZEN IKASTEKO  
TAILERRA  
Izena emate: 945062501  
KZ Gunea

**02.19 Larumbata**  
10:00 AIARA  
BATUKADA FEMINISTA  
Emakumeentzako ikastaroa  
Etxaurren ikastola

**02.21 Astelehena**  
17:00 URDUÑA  
NOLA PRESTATU ZURE MENU  
OSASUNTUA?  
Elena Jorrin elikaduran  
adituaren eskutik  
Erretiratuen egoitza

IKUSKIZUNAK

**02.10 Osteguna**  
19:00 LAUDIO  
BIDEA DA BORROKA  
Behat eta Unal Gaztelumendi  
bertsolarien aurkezpen  
ilustratua  
Faktoria

**02.12 Larumbata**  
18:00 URDUÑA  
HITZEN LAPURRA  
Helduentzako ipuin-  
kontalaria, Dorleta  
Kortazarren eskutik  
Alondegia

**02.12 Larumbata**



## Baso igelak

ikusteko txangoa Amurrión



Baso-igel jauzikara ezagutzeko gau irteera antolatuta du Amurrioko Muskerrak taldeak. Bi hitzordu jarri dituzte; otsailaren 11an lehenengoa, eta 18an bigarrena.

10 laguneko taldeak osatuko dituzte, eta txango bakoitzak bi orduko iraupena izango du: 19:30etatik 21:30etara. Interesa duen orok muskerraknatura@gmail.com helbide elektronikora mezua bidaliz egin ahaliko du izen ematea

## Eulalia Abaituaren

begirada XIX. mendeko Euskal Herriko landa eremuari



Abenduaren 10ean inauguratu zen 'Mujeres vascas de ayer' erakusketa Orduña Hiria Museoa. Eulalia Abaituaren lana jorratzen du espozizioak, Bilboeko Euskal Museoak lagatutako 68 argazkiren bidez. XIX. eta XX. mendeen artean bizi izan zen Abaitua, eta lehen euskal emakume argazkilaritzat jotzen da.

Landa eremuko emakumeen erretiratua egin zituen argazkilaria bizkaitarra bi mendeen artean, eta lan horren

lagin bat ikusi daiteke Urduñako museon. Irudiek "balio etnografiko eta dokumentala" dute, baina Abaituaren "begirada propioa" ere islatzen dute, musoeko kideek nabarmendu dutenez.

Orduña Hiria Museoa hainbat erakusketa ditu une honetan abian. Musoeko bilduma propioaz gain, beste bi ikusi daitezke: Jasone Pikaza margolariaren erakusketa eta munduko antzinako lisaburdinen erakusketa

## Kartelera



LAUDIOALDE ARETOA

**Un muelle de Normandía**

OTSAILAK 12

LARUNBATA

(3 euro)

18:30



DONIBANE ARETOA

**La patrulla canina**

OTSAILAK 13

IGANDEA

(3,5/4,5 euro)

16:30



AMURRIO ANTZOKIA

**No somos nada**

OTSAILAK 13, 14

IGANDEA ETA ASTELEHENA

(3,5/5 euro)

19:30/20:00



DONIBANE ARETOA

**Apaiz kartzela**

OTSAILAK 20

IGANDEA

(3,5/4,5 euro)

19:00

## 02.15 Asteartea

17:30 ARTZINIEGA  
'MERKATUA' IPUINAREN  
IRAKURKETA  
'Ipuin txikiak' egitasmoaren barruan  
Liburutegia

## 02.19 Larumbata

07:00 AIARALDEA  
AIARALDEA  
GURASOLAGUN:  
ESKIATZERA  
Izen ematea: 607 673 744  
Valdezcarayra txangoa

## KIROL JARDUERAK

## 02.12 Larumbata

08:30 LAUDIO  
GOIKOGANE MENDI  
TALDEAREN ESKOLA  
KIROLA IRTEERA  
Gongedara txangoa  
Laudio Institutua

## 02.12 Larumbata

10:00 AMURRIO  
INAUTERI GUIDDITCH  
TXAPELKETA  
Txapelketa irekia da,  
edonork eman dezake izena  
Refor kirol-gunea

## 02.15 Asteartea

12:00 URDUÑA  
ZUMBA ETA GIMNASIA  
'Mugi zaitzez!' programaren barruan  
Erretiratuen egoitza

## 02.19 Larumbata

17:00 AMURRIO  
EUSKO LABEL BINAKAKO  
TXAPELKETAKO  
FINALERDIAK  
Frontoia

## TAILERRAK

## 02.09 Asteazkena

12:00 URDUÑA  
MEMORIA TAILERRA  
Mugi zaitzez! programaren barruan  
Erretiratuen egoitza

## 02.12 Larumbata

10:00 LAUDIO  
DANTZAREN  
IRAKASPENAREN IKUSPEGI  
SORTZAILEA  
Leire Amonarriz Lecuonaren eskutik  
Faktoria

20:00 AMURRIO

'EL LADRON OTRA VEZ'  
Aimara Teatro Amurrioko taldeak eskainiko duen komedia lana  
Antzokia

## BESTELAKO JARDUERAK

## 02.10 Osteguna

19:00 AMURRIO  
ASANBLADA IREKIA  
ANKERIERIARI STOP  
plataformak deitua  
San Anton plaza

## 02.11 Ostirala

14:00 OROZKO  
SOS AIARALDEA:  
AIARALDEA IBARRARA  
Madres Mercedesias zentroaren langileek greba eguna dela eta  
Ibarra

## 02.11 Ostirala

19:30 AMURRIO  
BASO-IGEL JAUZIKARA  
IKUSTEKO TXANGOA  
Izen ematea:  
muskerraknatura@gmail.com  
Amurrioko Parkea

## 02.12 Larumbata

12:00 URDUÑA  
SEXU ERASOEN AURKAKO  
ELKARRETARATZEA  
Ilargiak taldeak lagundua  
Foru Plaza

## 02.13 Igandea

08:00 LAUDIO  
TUBACEXEKO GREBAREN I.  
URTEURRENA  
Mendi martxa Laudiotik Amurriora  
Arantzar poligonoa

## 02.14 Astelehena

19:00 OROZKO  
SAN ANTOLINAK  
ANTOLATZEKO BILERA  
Antolinzaleak taldeak deitutako bilera  
Gaztetxokoa

## 02.17 Osteguna

18:00 URDUÑA  
UDAL AURREKONTUEI  
BURUZKO BILERA IREKIA  
2022ko aurrekontuak  
Iantzeko batzar monografikoa  
Alondegia

INFO +

aiaraldea.eus

# elkarrizketa

**“Espero dugu hurrengo kintoak maskararik eta murrizketarik gabe ospatu ahal izatea”**



AURTENGO AMURRIOKO 104 KINTOETAKO HIRU DIRA **ALAITZ JIMENEZ, KOLDO ARBERAS ETA ENEKO ANEIROS** (Amurrio, 2004) AGATE DEUNAREN BEZPERAN BILDU GARA EUREKIN. JAIAREN ETA TRADIZIOAREN BILAKAERAREN INGURUAN MINTZATU DIRA.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

**Tradizio handiko festa da Amurrioko kintoena. Aurten 2004. urtean jaiotakoek hartu duzue jaiaren lekukoa. Nola bizi duzue? Zer da zuentzat kinto izatea?**

**Koldo Arberas:** Txikitatik bizi izan dugun tradizio bat da. Kinto Egunean eskolara joaten nintzenean ilusio handia sortzen zidan kintoak kantatzera etorri eta pegatinak ematea. Emozio asko sorrarazten dizkit hori gogoratzeak. Horregatik nahi izan dut oraingoan kintoa izan.

**Alaitz Jimenez:** Koldok esan duen bezala, txikitatik jasotzen dugun tradizioa da, txikitatik ikusten baitutugu kintoak gure ikastetxetatik pasatzen, abesten eta pegatinak ematen. Niretzat ere gauza oso polita da, eta horrela izaten jarraitzea espero dut. Ilusio handiarekin hartu dut kintoa izatea.

**Eneko Aneiros:** Biek esan dutena: ilusio handiarekin hartzen duzue egun hau, txikitatik bizi izan duzula. Jendeari ere egiten dio ilusioa, urte luzez egin den tradizio bat delako, ez da gaurko kontua...

**K.A.:** Eta gainera gure kinto osoa biltzen da egun honetan. Badaude jai gehiago, baina hau da guztiok elkarrekin egoteko baliatzen duguna.

**E.A.:** Lehen, abesten egon garenean, pertsona bat negarrez ikusi dugu. Gazteak zerbitzu militarra egitera joaten zireneko garaitik dator tradizioa, eta horren lekukoa hartzeak emozioa ematen dizu.

**Zuek jaio zinetenerako jada ez zegoen derrigorrezko zerbitzu militarrik. Asko aldatu da tradizioa?**

**A.J.:** Urte askoko tradizioa da, bai, eta guri horrela irakatsi digute. Lehen mutilek soilik egiten zuten, zerbitzu militarra joatean zirenean. Poza ematen digu tradizioak aurrera jarraitzea eta beste modu batean eboluzionatzea. Lehen ez zuten emakumeek abesten eta orain bai. Niretzat ohore handia da, emakume bezala, kintoa izatea.

**Abestera aterate gaur, eta jai egongo duzue otsailaren 11n. Zer prestatu duzue?**

**A.J.:** 104 kinto gara aurten, asko gara. COVID-19a dela eta, laguntza izan dugu gauzak prestatzeko, baina gure kabuz antolatu duguna dena: elektrotxaranga lotu, erromeria bilatu... Ezin izan dugu Djrik jarri, murrizketak direla eta. Ordu batak arte soilik luzatu dezakegu jai. Apur bat triste gaude horregatik, baina gainontzeko guztiagatik pozik gaude.

**E.A.:** Ostiralean erromeria egongo da 20:00etatik 22:00etara eta gero elektrotxaranga egongo da 22:00etatik 01:00etara. Dja kendu behar izan dugu, koronabirus-

gatik. Horrela esan digu Udalak. Gauzak hala, 01:00ak arte egongo gara elektrotxarangarekin, ondo pasatzen eta denbora ahal bezain beste aprobetxatzen.

**15-16 urte zenituzten pandemia hasi zenean, eta 18 urte betetzera zoazte aurten. Nola bizi izan dituzue azken bi urte hauek?**

**K.A.:** Puntu batera arte ondo egon dira ezarri diren murrizketak, baina orain guk ere gozatu egin behar dugu. Batzuetan ez zaigu ondo iruditzen murrizketak ezartzea. Bilakaera bat egon behar da, puntu berdinean trabatuta bait gaude. Gogorra izan da, baina egingo dugu aurrera. Espero dugu hurrengo kintoak pandemia gabe izatea.

**E.A.:** Gauza asko kendu zizkiguten, festa guztia. Orain 18 urte betetzera goaz eta pandemia barruan jarraitzen dugu. Gure errua izan dela ere esan digute. Ez da bidezkoa guri gauzak kendu eta gero errua gurea dela esatea.

**A.J.:** Festa hau betidanik egin da. Egoera zaila da guztion bizitzetan. Murrizketak guztion onerako direla esaten digute. Ez dugu uste oso ondo jarrita daudenik, baina espero dugu hau aldatzea eta hurrengo kintoak musuko gabe izatea.

**E.A.:** Egoera honetan kontuz ibili behar gara, baina bat nator Alaitzekin: espero dugu hurrengo kintoak maskara eta murrizketarik gabe ospatu ahal izatea.

argia sariak 2022


 ARGIA Sariak  
2022


# Prentsa ataleko Argia Saria Aiaraldea komunikabideari, Tubacexeko jarraipenagatik

Aiaraldea hedabidearentzat da prentsa ataleko aurtengo Argia Saria, Laudioko eta Amurrioko Tubacex-eko langileen greba, erresistentzia eta bizipenak hurretik kontatzeagatik. Bertako kazetariak jaso dute saria.

Hedabide independenteon sustrai nagusia komunitatea da. Kazetaritza komunitarioa deitzen zaio jendearen ekarpenak bizigai duten hedabideen jardunari. Kazetari lantalde profesionala txikia izanik ere, informatzeko gogoak bultzatuta musu-truk aritzen den kolaboratzaile sare oparoaren informazioak handitu egiten du eragiteko gaitasuna. Ingurunean errotuta egoteak bermatzen du baliabide faltagatik bestela ezinezkoa litzatekeen kazetaritza jarduna. Hedabidea komunitateari zor zaionez, herritarren patua hedabidearena ere bada.

Beraz, multinazional batek errentagarritasunarenizenean eskualdeko 129 familia kale gorrian utzi nahi dituenean, eta langileak grebara doazenean, eta lanuztea 236 egunez luzatzen denean, eta langileek garaipena ospatzen dutenean... Horren guztiaren aurrean, "Zer, nola egin?" galderak erantzun erraza du: herriki-deen bizi baldintza duinen aldeko greban barneratzea. Hasieratik amaierara arte, egunez egun, lagun, auzokide eta senideen pike-tetik.

Herriko historian mugarri diren gertaerak txikitik ere kontatzen dira. Aiaraaldea.eus-eko lagunek horixe egin dute, eta ondo egin ere. Eskura dituzten kazetaritza tresna guztiak erabiliz (pape-  
ra, webgunea, ikus-entzunezkoak, sare sozialak...) Laudioko eta Amurrioko Tubacex-eko langileen greba, erresistentzia eta bizipenak hurretik kontatu, hedatu eta galdera berriak sortu dituzte.



# kultura

Buenavista Social Clubeko Tommy Lowryk ekoiztu du Aiaraldeko taldearen lan berria. David Suini musikariak perkusioen grabaketetan lagundu du.

## Disko berriarekin itzuli dira Radio Revolución taldeko kideak Kubatik



Milaka pertsonen aurrean jo zuten Radio Revolución taldeko kideek Kuban. **Radio Revolución**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

2020ko azaroa eta abendua oso hilabete oparoak izan ziren Radio Revolución taldeko kideentzat. Kubara bidaiatu zuten Aiaraldeko musikariek, bi helburu nagusirekin: disko berria grabatzea eta irlatik kontzertu bira egitea.

Pandemiaren erdian sartu ziren herrialdean, “guztia itxita zeukatela”. Hala oroitu du Jurgi Ibarretzek, taldeko abeslariak. Ez ziren esku hutsik iritsi, 60 kilo botika eraman zituzten maletetan, irlak pairatzen duen blokeo ekonomikoa apurtzeko ekarpen gisa.

Buena Fe taldeko David Suini perkusiolaria ezagutzen zuten, eta beraren bidez lortu zuten Egrem zigiluarekin harremanetan jartzea. “Kuban jaio zen lehen disketxea da, eta bertako kideek eman ziguten aukera Habanako Malekoitik hurbil

duten Estudio 18-n grabatzeko, baita ondoren Buena Fe taldearekin bira egiteko ere”, azaldu du Ibarretzek.

Disko grabatzen hasi baino lehen izan zuten lehen kontzertua, Los Pañuelos Rojos gazte erakundearen ekitaldi batean. La Casa de la Bombilla Verde kultur zentroan ere jo zuten. Joseba Sarrionandia idazlearekin egin zuten topo bertan. “Jatorra, bizkorra eta apala iruditu zitzaigun, kriston ohorea izan zen guretzat”

Sarrionandia ez zen izan Kuban ezagutu zuten pertsona ezagun bakarra. Izan ere, Buenavista Social Club talde mitikoko Tommy Lowry arduratu da aiaraldearen diskoa grabatzeaz. “Habanako tronpretajole hoberenatarikoa da eta Eduardo Sandoval tronboilariarekin batera grabatu zuen gurekin”. Beste hainbat musikari ere izan zituzten bide-lagun lanarenekoizpenean: Lilena rapabeslaria, William Vivanco abeslaria eta Ray Fernández tro-

badorea. David Suinik, bere aldetik, diskoaren perkusioak grabatu zituen.

Bideoklip bat grabatzeko tarte ere hartu zuten musikari aiaraldearrek. La Habanako alde zaharra eta Malekoia hautatu zituzten horretarako. Baina ez zuten denbora askorik izan. 17 orduko bidaia zuten aurretik Buena Fe taldearekin, Guantanamoraino, bertan hasiko baitzuten kontzertu bira.

### Kontzertu bira

‘Chocolate con Café’ jaialdia ospatzen ari ziren Guantanamo, eta bertan aritu ziren Radio Revolucióneko kideak. “Herriko enparantzan estreinatua ginen, 4.000 pertsonen aurrean. Buena Fe taldea ikustera etorri ziren guztiak, baina gurekin eredantza eta oihu dezente egin zuten”.

Unibertsitatean eskaini zuten bigarren emanaldia, 1.500 ikaslearen aurrean. “Oso pozik aritu ginen, ikusleak zein gu”, oroitu du

Ibarretzek, eta aitortu du “zirrara berezia” eragin zela “Estatu Batuek 1906tik ilegalki okupatuta daukaten base militarretik gertu” jotzeko.

Jaialdia amaituta, Bayamo hirira mugitu ziren. “Granma probintzian kokatuta dago, eta Espainiako Inperiotik independizatu zen lehen hiria da”. La Bayamesa auzoan eskaini zuten kontzertua, ordura arteko harrera bero berdinarekin.

Hura izan zen birako “kontzertu ederrena”, musikari laudioarraren aburuz. “Jendea erotu zen gurekin eta are gehiago Buena Fe taldearekin”. Radio Revolucióneko kideek ez zuten horrelako harremerik espero, irlara iritsi zirenean dena itxita zegoelako COVID-19aren ondorioz. “Gauegun pandemia garaitu dute, irla osoan 1.000 kasu bakarrik izanik. Zientzia eta medikuntza pertsonen zerbitzura jarri dute eta ez negozioaren zerbitzura, eta emaitzak izugarri onak izan dira”.

### Dokumentala ere labean

Kuban bizitakoa “amets polit” bat izan da Aiaraldeko taldearentzat. PM records estudioan nahastu zuten diskoa eta laster kaleratzeko asmoa dute. Baina ez dira diskoarekin soilik itzuli Euskal Herrira. Justin Alde zinemagileak bira osoa grabatu zuen eta hemendik hilabete batzuetara prest izango du irlan barrena bizitako abenturaren dokumentala.

Ibarretxe pozik azaldu da lortutako emaitzarekin. “Lan bikaina ekarri dugu Kubatik”, ziurtatu du. Sortzaile laudioarrarentzat, “gizateariaren erreferentia” da irla. “Biziki maite dugu iraultza sozialistak hemen egindako lana. Alfabetizazio kanpaina itzela izan zen eta horren ondorioz jende gehienak unibertsitate ikasketak ditu, nahiz eta musikari edota txoferra izan. Inoiz ahaztuko ez dugun esperientzia izanda”.

# Orbitaz kanpokoak, Iñigo Ibarrek sareratu duen bigarren diskoa, sarean dago entzungai

Testua  
Aitor Aspuru Saez

Iñigo Ibarra musikari laudioarrak Orbitaz kanpo diskoa plazaratu zuen 2021eko amaieran. Urtebete lehenago egin bezala, berak grabatu ditu musika tresna guztiak eta bere kabuz nahastu du soinua.

Berriki aurkeztu duen diskoak ez du harreman askorik

*The Patukatus* lanean eginda-koarekin.

Izan ere, honetan hard-rocka eta psikodelia jorratu ditu. Lanean eragina izan duten taldeak bistakoak dira, bere ustez: "70eko rock taldeak, Black Sabbath, Pink Floyd edota Hawkind. Halaber, zenbait banda berriagoren soinuek ere isla dute, Spiritual Vegas edo Kuysseanak, esaterako".

15 urteko ibilbidea

Kanta ia guztiak duela 10 edo 15 urte sortu zituen musikari laudioarrak eta berrienak 3 urte ditu. Hain zuzen, orduan jarri zen musikaria grabaketak nahasten.

Aurreko diskoari dagokionez, Ugartek gogoratu du Javier Gilzinema zuzendari laudioarrak bi abesti erabili zituela *Energía verde* pelikulan

# Dinagu kolektiboak Faktorian antolatuko duen 'Nomadak gaitun' azokarako izen-ematea

Testua  
Izar Mendiguren Cosgaya

Aiaraldea Ekintzen Faktorian egingo du hurrengo geldialdia 'Nomadak gaitun' azokak. Dinagu kolektiboak iragarri du jada bere hurrengo ekimena sare sozialetan: martxoaren 12an Faktorian elkartuko dira Euskal Herriko emakume sortzaileak. "Badugu geltoki berria eta Euskal Herriko beste probintzia bat zapaltzera goaz, Araba! Emakume Langilearen Eguna-ren bueltan egingo dugu azoka, martxoaren 12an, eta egun osokoa izango da, 11:00etan hasi eta 18:30ak arte", zehaztu dute. Xehetasunak aurrerago zabalduko badituzte ere, abiapuntua markatu dute: "Ei! Ez gara bakarrik egongo ez pentsa! Baina detaile guzti horiek jakiteko oraindik pixkat falta da!".

Izena emateko, astebete

"Emakume sortzailea bazara eta nomada izan nahi baduzu, bete gure perfilean aurkituko duzun linkean dagoen galde-

tegia. Aurreinskripzio orria da, eta bertan datu batzuk eskatuko dizkizuegu. Sortzaile asko egonez gero, ondoren aukeraketa egingo dugu nomadon azken zerrenda betetzeko", erantsi dute. Hain zuzen, otsailaren 13 arte egongo da apuntatzeko aukera: Amurrioko Kultur Etxean.

Parte hartzeko baldintzak

Sortzaileen kuota 30 eurokoa izango da. "Diru hori bere osotasunean azoka antolatza eta Dinaguk elkarte bezala dituen gainontzeko gastuei aurre egitera bideratuko da. Sortzaile bakoitzak noski, kuota ordaindu izanaren faktura jasoko du", erantsi dute. Partaideen hautaketa otsailaren 15ean jakinaraziko dute, baldin eta espazioak ahalbidetzen duena baino eskaera gehiago egongo balira.

2021eko azaroaren 20an antolatu zuen Faktoriako feminismo ildoak Aiaraldeko emakume\* sortzaileen azoka, eta bertan izan ziren Dinaguko kideak euren proiektua aurkezten.

# Aurten aurkeztuko dute Ugaitz Agirrek Artziniegari buruz idatzitako ipuina

Testua  
Aimar Gutierrez Bidarte

Udalbiltzak sustatutako 'Geuretik Sortuak' egitasmoaren barruan egonaldia egin zuen Artziniegari Ugaitz Agirre usurbildarrak. Herrian oinarritutako ipuin bat idaztea zituen helburu, eta horretarako bertatik bertara ezagutu zuen udalerriko eguneroko bizitzaren nondik norakoak.

Euskal Herriko hogeita udale-

rik parte hartu zuten ekimenean, udalerriak eta sortzaileak elkar lotuz.

2022a proiektu desberdinetan ekoiztutako lan artistikoa ezagutzera emateko urtea izango da, eta horrela egingo dute Artziniegari ere, hiribilduaren 750. urteurrenarekin bat eginez.

Udalak apirilean ospatzen den 'liburuaren egunaren' testuinguruan aurreikusi du aurkezpena egitea, Joseba Vivanco alkateak jakinarazi duenez.

AIARALDEA

KOMUNIKABIDE  
FAKTORIA

## AIARALDEA Twitch-en



### ZUZENEKO EMISIOAK ASTERO:

ELKARRIZKETAK,  
MAHAI INGURUAK,  
MUSIKA EMANALDIAK...  
ETA ASKOZ GEHIAGO!



[www.twitch.tv/aiaraldea](https://www.twitch.tv/aiaraldea)  
IKUSI, HARPIDETU ETA ZABALDU!

# kultura

## “Urte amaieran argitaratu nahi dut hurrengo liburua”



**SARA CABRERA** (Laudio, 1996) IDAZLE GAZTEAK ELEBERRI BERRI BAT ARGITARATU DU, TRILOGIA BATEN LEHENENGO ATALA IZANGO DENA.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

**Argitaratzen duzun bigarren liburua da *Marcada por el demonio I - El principio del fin*, zer jorratzen duzu eleberrian?**

Trilogia baten lehen atala da argitaratu berri dudana liburua, ez dut gehiegi aurreratu nahi bertan gertatzen dena, saiatuko naiz spoilerrik ez egiten (barreak). Fantasiako eleberria da; magia, gerrak, amodioa, gorrotoa eta izaki izugarriak aurkitu daitezke bertan.

Agora izeneko fantasiako mundu batean gertatzen da istorioa. Agora hiru lurraldetan dago banatuta: Elvia, elfoen lurraldea; Brux, sorginen eta aztien lurraldea; eta, azkenik, Iratxoen Uhartea. Bost arraza desberdin daude, aipatutakoez gain itas-lamiak eta erraldoiak ere bizi dira bertan.

Arraza inbaditzaile batek, ordea, dena alderbestuko du Agoran: gu geu, gizakiak. Botere bereziak, eta debekatuak, dituen neska bat izango da gure protagonista. Ezin dut gehiago aurreratu.

**Beste bi liburu argitaratzea duzu aurreikusita beraz, aurreratu duzu proiektua?**

Honezkero, *Marcada por el demonio* trilogiaren beste bi liburuen laburpenak osatuta ditud. Nire aurreikuspenen arabera, eta dena ondo badoa, urte amaieran argitaratuko dut bigarren zatia.

**Zeharo desberdinak dira argitaratu zenuen lehenengo eleberria, *Verita Primaris*, eta bilduma berri hau.**

Nire lehenengo liburua fikziozko eleberri bat zen, honetan, ordea, fantasiara egin dut jauzia. Txikitatik izan dut gogoko fantasiako literatura, hein handi batean garai horretara bueltatzea bezalakoa izan da, asko disfrutatu dut.

Idea asko ditud buruan gorde, eta hau horietako bat besterik ez da. Duela gutxi egin nuen kalkulua, eta orotara 32 proiektu dira. Askoren laburpena osatu daukat honezkero, beste batzuk ideia hutsak dira, baina espero dut ahalik eta gehien egikaritzea noiz edo noiz.

**Nolako da fantasiako mundu oso bat eraikitzeke egin beharreko sorkuntza prozesua?**

Prozesurik luzeena istorioa gertatuko den munduaren eraikuntza da, kasu honetan Agora. Nire ideia asko nire ametsetatik biltzen ditud, esnatzerakoan amestu berri dudana idazten dut. Horrela hasi zen *Marcada por el demonio*.

Lehenik eta behin, eskemak egiten ditud, mapa bat ere osatzen dut fantasiako mundu horren egitura hobeto ulertzeko, eta, horren ostean, pertsonaiak deskribatzen ditud. Gero istorioaren laburpen oso bat idazten dut, eta kapituluz kapitulu ere idazten ditud laburpenak.

Urte bete egon naiz lanean trilogiaren lehenengo eleberri hau osatzeko. Nire lehenengo liburuak buruhauste gehiago ekarri zizkidan, lau urte behar izan nituen hura bukatzeko.

**Fantasiako liburua bada ere, kritika puntu bat ere badauka *Marcada por el demonio*-k.**

Kritika baino hausnarketa esango nuke nik. Beltza eta zuriaren artean grisa dagoela azpimarratu nahi du liburuak: gaiztoenak ez dira hain gaiztoak, eta pertsonai onak diruditenak ere ez dira hain onberak.

**Harrera ona aurreikusten diozu liburuari?**

Nik uste baietz, aurrekoak baino arrakasta gehiago izango du. Hori igartzen dut irakurleen artean. Eskutik eskura ari da pasatzen eta oso entretenigarria dela eta azkar irakurtzen dela adierazi didate. Batek baino gehiagok telesail baterako materiala dagoela aipatu didate ere! Oso pozik nago orain arteko harrerarekin.

**Auto-editatutako liburua da, aurrekoa bezala. Nolako izan da autoedizioaren prozesua?**

Lehenengo liburua Amazon bidez argitaratu nuen, nik egin nuen prozesu guztia: idatzi, make-tatu Honako hau, ordea, Círculo Rojo editorialarekin egin dut. Autoedizioak argitaratzen dituen editorial garrantzitsua da Círculo Rojo. Ezin dut argialetxe tradizioaletako prozesuekin alderatu, baina sentsazioa daukat uneoro izan naizela liburua argitaratzeko prozesuan protagonista. Niretzat oso erakargarria da edizioaren parte izatea, oso prozesu polita da.

Portadako irudia nire nebak egin du. Berak egin zituen ere *Verita Primaris* eleberriko kapitulu bakoitzaren aurretik agertzen ziren ilustrazioak. Oso atsegina da berarekin lan egitea, nik kontatu eta idatzitakoa errealitate bihurtzen du.

**Non eskuratu daiteke liburua?**

Laudioko Zuhaitza liburu dandan egongo da salgai liburua, hori izango da salmenta puntu fisiko bakarra. Internet bidez ere eskuratu daiteke, Amazonen hainzuzen.

# Otsaila

# FAKTORIAN

www.faktoria.eu  
faktoria@aiaraldea.eu  
688 647 942  
Errotari kalea 4-8  
Laudio (Araba)

## IKUSKIZUNAK



Otsailak 10. eguna, 19:00etan  
**BIDEA DA BORROKA**  
KOMIKIAREN BERTSO-AURKEZPEN ILUSTRATUA  
Beñat eta Unai Gaztelumendi bertsolariek BIDEA DA BORROKA komikia aurkezteko dute Faktorian, bertsoak eta marrazkiak erabiliz horretarako.  
DOAKOA



**Martxoak 19ra alzeratua**  
**IKER LAUROBA ETA BESTE URTAROAK**  
Lau urtaroen bilduma amaitu berri, zuzenean aurkeztea tokatzen da orain. Lau kontzertu txiki emanaldi batean bilduta ekarriko dizkigute Ikerrek eta bere bandak. Musika eta hitzen bidez ekinokioetatik solistioetara eramango gaituzte entzumeneko bidaiu ederrean. Horretarako Leire Berasaluze, Urbil Artola eta Maria Soriana izango ditu Ikerrek bidelagun.  
Bazkideak 8€ // Ez-bazkideak 10€



Otsailak 13. domeka, 17:00etan  
**"EMON EGURRE PINOTXO"**  
IPUIN KONTALARIA - ANE GEBARA ETA AIITOR VINAGRET  
Ane Gebara eta Aitor Vinagret Arabazun Kultur Elkarteak kontalariak, ipuinari hasiera emango diote, etenik gabeko ipuinak.  
Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€



Otsailak 18. barikua, 20:30ean  
**BERTSO AFARIA:**  
ONINTZA ENBEITIA ETA MIREN AMURIZA  
Bi hilero behin bezala, bertsoaren eta taliko produktu ekologikoekin osatutako afariaren bueltan banko gara Faktorian, oraingoan Onintza Enbeitia eta Miren Amurizaren konpainian.  
Bazkideak 15€ // Ez-bazkideak 18€



Otsailak 19. zapatua, 20:30ean  
**KANTAK ETA BERBAK INES OSINAGA ETA JOSEBA SARRIONANDIAREKIN**  
"OLATU ARTEKO TXALUPA ARRAROA"  
Duela ia hamar urte Joseba Sarrionandiak Habanari sortu zituen dozena bat testu kantu biluritu zituen Ines Osinagak. Orain, idazlea berriz ere Euskal Herrira itzuli delarik, bi sortzaileen kantak eta berbak izango ditugu Faktoriako oholtzan.  
Bazkideak 10€ // Ez-bazkideak 12€




Otsailak 27. domeka, 17:00etan  
**TRAKAMATRAKA**  
Birikilatutako materialdez sortutako musika tresnekin ikuskizuna eskainiko du, musika ulertzeko eta matatzeko modu berri bat.  
Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€

## BERBALDIAK

Otsailak 25. barikua  
**KOOP57 EUSKAL HERRIAREN BATZAR OROKORRA**  
Finantza zerbitzu etiko eta solidarioen kooperatibak bere urteko Batzar Orokorra egingo du Faktorian, arratsaldean.



## KOKORIKO JARDUERAK



Otsailak 5. zapatua, 11:00etan  
**FAMILIA JOLASEAN: JOLAS SINBOLIKOA**  
Material esberdinek erabiliz, gustuko ditugun pertsonaiek sortzeko proposamena. Familian jolasteko beste modu bat, gurekin jolatu nahi?  
Bazkideak DOAN // Ez-bazkideak 3€



Otsailak 6 eta otsailak 20. domeka, 11:00etatik 13:00etara  
**0-3 URTE ESPAZIO ASKEA**  
Mugimendu autonomorako eta jolas liberako espazio zaindua. Profesional baten laguntzarekin, familian gozatzeko espazioa, beste familiekin elkargunea.  
Bazkideak 6€ // Ez-bazkideak 8€



Otsailak 12. zapatua, 10:00etatik 14:00etara  
**HELDUENTZAKO IKASTARO PRAKTIKOA**  
DANTZAREN IRAKASPENAREN IKUSPEGI SORTZAILEA  
Mugimendu jokoak, erlunekoak, sozialak, sortzaileak, Dantzak eta hezkuntzak bat egiten duten ikastaro praktikoa, Leire Amonarriz pedagogoa eta koreografoaren eskutik.  
Bazkideak 20€ // Ez-bazkideak 25€



Otsailak 19. zapatua, 16:30etatik 18:30etara  
**KOKORIKO LUDOTEKA**  
Egun bukituaren gozatzeko modu esberdin bat. Oraingoan ERAIKUNTZAK. Gure ingurua eragartzeko beste modu bat. Eraikitzea eta arkitektura deslurbritu eta gozatzeko aukera esin hobea.  
Bazkideak DOAN // Ez-bazkideak 3€



Otsailak 26. zapatua, 18:00etatik aurrera  
**GAZTEAK: NEON GLOW JAIA**  
Lagunekin inauterik gozatzeko espazioa. Musika, tik-tok, photocall-a, jolasak, alkoholik gabeko koktelak, zosketak, neon body-paint... 10-16 urte bitarteko gazteentzat.  
Bazkideak DOAN // Ez-bazkideak 3€



Otsailak 28 eta martxoak 1. astelehen eta martitzena, 09:00etatik 13:00etara  
**INAUTERI LUDOTEKA**  
Inauteri opor egunetan, jolasak, tailerrak, sukaldaritza, eskulanak, mozorroak, ... Lurraren esnaiekin ospatuko dugu lagun artean.  
Bazkideak 25€ // Ez-bazkideak 30€

## KOKORIKO ATELIERRAK

Astelehenero,  
17:30etan eta 18:30etan  
**IRAKURLE KLUBA**  
Bazkideak 25€ / hilero  
Ez-bazkideak 32€ / hilero

Martitzenero,  
17:30etan eta 18:30etan  
**ZIRKU TAILERRA**  
Bazkideak 40€ / hilero  
Ez-bazkideak 48€ / hilero

Egustenero,  
17:30etan eta 18:30etan  
**IKUS ENTZUNEZKOAK**  
Bazkideak 25€ / hilero  
Ez-bazkideak 32€ / hilero

Egustenero,  
17:30etan eta 18:30etan  
**SUKALDARITZA TAILERRA**  
Bazkideak 25€ / hilero  
Ez-bazkideak 32€ / hilero

## FAKTORIA ESKOLAK

Astelehen eta eguaztenetan  
10:30etatik 12:00etara  
**EUSKARA ESKOLA**  
ARINAK ADINEKOENTZAT  
Bazkideak DOAN  
Ez-bazkideak 20€ / hiruhilero

Astelehenero,  
19:30etatik 20:30etara  
**ZUMBA EUSKARAZ**  
FAKTORIAN  
Bazkideak 50€ / hiruhilero  
Ez-bazkideak 60€ / hiruhilero

Egustenero,  
19:30etatik 21:00etara  
**YOGA EUSKARAZ**  
FAKTORIAN  
Bazkideak 50€ / hiruhilero  
Ez-bazkideak 60€ / hiruhilero

Egustenero,  
19:30etatik 21:00etara  
**BERTSO ESKOLAK**  
FAKTORIAN  
Bazkideak 50€ / urtea  
Ez-bazkideak 60€ / urtea

MUSIKA ● KOMIKIGINTZA ● BERTSOLARITZA ● IPUINAK ● FAMILIA ● ELIKADURABURUJABETZA ● LITERATURA ● JOLASA ● EKONOMIASOZIALERALDATZAILEA ● HEZKUNTZA ● DANTZA ● IKASTAROA ● INAUTERIAK ● GAZTEAK ● LUDOTEKA

## EKONOMATUA

Astelehenetik barikura 11:30 - 14:00 / 17:00 - 20:00  
Zapatuetan 10:30 - 14:00  
722 846 762 ekonomatua@aiaraldea.eu



## KANTINA

Ekonomatua irekita dagoen ordutegian eta Kultur emanaldiak dauden guztietan irekita egongo da  
722 846 762 kantina@aiaraldea.eu



# kultura

## “Pelikularen protagonistak Artziniegan hasiko den inbasio estralurtarra ekiditen saiatuko dira?”

**DAVID GAMBOA ORTUZAR** (Artziniaga, 1980) ZINEMA ZUZENDARIAK HAINBAT AITORPEN ETA SARI JASO DITU LAS NOCHES QUE MIRÁBAMOS AL CIELO FILMAGATIK. AZKENENGOA BANGLADESHETIK HELDU DA ETA AITZAKIA HORI BALIATU DU AIARALDEA KOMUNIKABIDEAK EGINDAKO IBILBIDEA LANTZEKO.



Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

### Duela gutxi sari berria jaso duzue, ez da horrela?

Bai, Bangladeshen. Hango zinema jaialdi independente batek eman digu zientzia-fikziozko saria. Orain arte filmak ibilbide bitxia egin du. Izan ere, pelikula independentea da eta ahal izan dugun moduan egin dugu 7 urtetan.

Behin amaituta, gure kabuz hasi ginen jaialdietara bidaltzen, baina horrek ahalegin handia eskatzen zuen. Modu horretan zortzi jaialditan parte hartu genuen eta amore ematear geundela, ezagutu nuen zinema azoka batean banatzaile txiletar bat.

Handik aurrera eurek banatu dute eta harrera askoz hobeia izan du. Bere garaian aipatu zidaten sariak eskuratzea errazagoa dela banatzaile baten eskutik, eta euren zabalpenaren bidez lortu ditugu zenbait sari. Oso pozik gaude.

### Zer kontatu diezagukezu filmeari buruz, “spoilerrik” egin gabe?

Pelikula luzea da, 95 minutu ingurukoa. Istorioa apur bat harrigarria eta konplexua da, baina, finean, protagonista gizartetik alboratuta bizi diren bi lagun dira. Apur bat frikiak dira eta, zehazki, gogoko dute ufologia. Gainera, Artziniegan bizi dira eta pertsonaia

horiek konturatzen dira estralurtarren inbasioa dagoela abian. Hain zuzen, inbasioa Artziniegan hasiko da.

Ondorioz, eurak saiatuko dira hori ekiditen, baina inork ez ditu sinisten eta espazio ontzi bat helduko da herrira. Horrez gain, badago beste pertsonaia arrotz eta susmagarria herrian.

Generoaren aldetik, thriller da, baina umoretsua. Aipatu behar dut badagoela beste protagonista bat zeinak esaten duen profezia bat dagoela eta estralurtarrek zibilizazio berria sortu nahi dutela... Nahiko bitxia da dena eta etorkizunarekin ere nahasten da. Kontakizun konplexua da, istorioak batzen baitira.

Edonola ere, nik uste interesgarriena dela bi pertsonaien ahalegina, inbasioa gerta ez dadin.

### Proiektu independentea izanik, inbertsio handirik gabe egin duzue, nola islatu duzue hori guztia?

Efektu bereziak ditu, ez pentsa! Zentzu horretan ez genuen atzera egin. Diru gastua txikia izan da, guk jarri dugulako azpiegitura tekniko guztia: lagunek utzi dizkigute, ekoizpen etxeak dituztelako, beste batzuek laga dizkigute kokapenak grabatzeko...

Zazpi urtetan, azkenean, dirua gastatzen da, baina txikia da kopurua. Jendeak uste du bitarteko ekonomikorik gabe ezin dela pelikularik egin, baina, nire aburuz, gaur hori ez da muga.

Kalitate bikaineko filmak daude sakelakoarekin

**“Nazioarteko jaialditan zenbait aitorpen lortu ditugu, ilusio berezia egin zigun Los Angelesen lortutakoak”**



grabatu direnak. Irudiaren kalitatea ona gure eskura dago, zailagoa da, agian, soinua, baina lor daiteke.

Filma egiteko behar dena da; istorioa, parte hartu nahi duten lagunak eta antzezleak eta, gehienbat, gogoak. Izan ere, amore emateko zalantzak agertzen dira maiz, arazoak gertatzen baitira. Esaterako, antzezleek euren lanak eta ardurak dauzkate eta beti egon behar izan gara tarreak bilatzen. Hori koordinatzea oso nekagarria eta zaila da.

**Zein neurrian da Artziniaga bera beste pertsonaia bat?**

Artziniaga da pelikularen funtsezko osagaia. Nik filma maite dut, besteak beste, Artziniagan dagoelako girotuta. Artziniaga aipatzen da, ez da fikziozko tokia. Hemen bizi izan naiz beti eta agertzen den jendea, oro har, herrikoa da.

Oso polita da ezagunak dituzun lekuak ikustea, herriko jendea... Parte hartu dugunon arteko harremana izan da gauzarik bereziena. Nabaritzen da nire herriak maitemintzen nauela eta horregatik protagonistetako bat da.

Bide batez, gogoratu nahi dut Juanjo Cajigas. Bera antzezlea izan zen filman eta zendu da. Bere parte hartzerik gabe ez genukeen izango filmarik.

**Esparru bitxia hautatu duzu gidioa idazteko; ufologia, misterioa... Mezu ezkutua dauka pelikula?**

Bai, apur bat. Sakontasunera jotzen badugu, badauka mezua. Lerrokatzen da utopien alde, amesten duen jendearen alde, nahiz eta baztertuak bizi. Zientzia-fikzioak dena inguratzen badu ere, pertsonaiek daukate ukitu nostalgikoa, bete ezin duten ametsa jarraitzen baitute.

Zentzu horretan, pelikulak ematen die nahi dutena, baina agian bere ametsak ez du nahi zuten itxura. Hala ere, bizitzen dute euren abentura.

Horrez gain, filmak lantzen ditu zenbait sinismen, ez direnak guztiz arrazoizkoak eta jendea akatsak egitera eramaten dutenak. Horrekin jolasten du pelikulak. Badauka alde mistiko edo erlijiosoa eta zalantzan jartzen du, modu batean edo bestean.

**Zenbat sari jaso dituzue jadanik?**

Ilusio berezia egin zigun Los Angeleseko zinema independenteko saria jasotzea. Zilarrezko saria lortu genuen. Rotterdamen ere filme onenaren aitortpena guretzat izan zen.

Hego Korean ere hautatu gintuzten, finalerdietan egon ginen Kanadan, hautatu gaituzte Ohion, Belgradon, New Jersey, Indian, Errusian -Kalugan, espazio base batean egiten den zientzia-fikziozko jaialdian, oso bitxia da-, Alemanian, Italian...



Artziniaga du kokaleku Ganboaren *Cuando mirabamos al cielo* filmak. David Gamboa Ortuzar

## “Filmaren protagonistak dira pertsonaia apur bat frikiak. Ufologia dute gogoko eta konturatzen dira inbasio estralurtarra hasiko dela Artziniagan”

**Zure harremana luzea izan da zinemarekin, dena den.**

Nik betidanik izan ditut gogoko pelikulak, baina Amurrioko Zaraobe Institutuan nengoenean agertu zitzaidan aukera VHS kamarak hartzeko. Uzten ziguten Artziniagara ekartzea eta hasi ginen gure pelikulak egiten. Nagusiagoa nintzenean lortu nuen kamara txiki bat oparitzea eta horrekin jarraitu nuen.

Gero Arte Ederrak ikasi nituen eta ikus-entzuketan zentratu nintzen. Horren ostean, zinema zuzendaritzako masterra egin nuen Bartzelonan eta zenbait telebistatan lan egin nuen: Burgosen, Gasteizen... Horrela trebatu nintzen.

Hala ere, zinemak eraman zaitzake etsipenera, ikusten baituzu mundu horretan sartzea oso zaila dela eta zenbait mugarri bete behar dituzula: jendea ezagutu, jarduera soziala izan...

Edonola ere, Bartzelonan nengoelarik DSLR kamarak agertu ziren eta guztiok geratu ginen liluratuta. Zinemaren antzeko kalitatea zuten eta pentsatu nuen: “Irudia lortzeko aukera badaukat, ekoizteko tresnak baditut -ordenagailuak- eta audioa ere grabatzeko parada izanez gero, nire kabuz egingo dut pelikula, kanona jarraitu gabe”.

Jakin izan banu zenbat lan zen, agian atzera egingo nukeen, baina behin hasita, mendi handi bat igotzea bezalakoa da hau, ez duzu bidea eten nahi ibilbide erdian. Burugogorra izan naiz, baina talde osoari eman behar dizkiot eskerrak, eurek eman baitzuten bultzada. Inork ez zuen kale egin eta pelikula amaitu genituen.

Horri gehitu behar zaio grabatzen genuen bitartean hasi nintzela lanean Euskal Herriko Zinema Eskolan Bilbon. Ondorioz, eskolako zenbait tresna eskuragarri izan genuen.

Horrek suposatu zuen filmeak oztopatzen zituen arazo batzuk erditik kentzea.

Berez, zinemari buruzko klaseak ematen jarraitzen dut.

**Zein da zure hurrengo helburua zineman?**

Etorkizunean beste film bat egin nahi dut, baina ez nago horretan zentratua orain. Lehenik eta behin, *Las noches que mirabamos al cielo* pelikularen aroa amaitu behar da. Laster agortuko da.

Hortik aurrera beste gidoi bat idatzi nahi dut, baina istorio interesgarria garatu behar dut. Hori da abiapuntua.

Nire ustez, itxiera polita izango litzateke Filmin edo horrelako plataforma batean eskaintzea pelikula. Zinema arruntetan proiektatzea ia ezinezkoa da. Filmin perfektua litzateke, kutsu independentea baitauka.



# kirola



**“Quidditchean jolasteko ez zara Harry Potter'-en jarraitzailea izan behar, kontaktu fisiko handiko kirola da”**

**MIKEL GANZEDO** (Menagarai, 1998) QUIDDICH EUSKADI ELKARTEKO KIDEA DA. BERAK PROPOSATU ZUEN AMURRION JOKATZEA INAUTERIEN KOPA. LARUNBATEAN ZER EGINGO DUTEN AZALTZEAZ GAIN, BERE BIZIPENAK AZALDU DITU.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

**Zuk proposatu duzu Amurrion egitea Inauterietako Quidditch txapelketa, nola bururatu zitzazun?**

Hau izan behar zen Gabonetako Kopa, baina denboraz txarto geundenez, sortu genuen Inauteri Kopa. Hori antolatzeko galdetu nuen Amurrion eta Aiarako Etxaurren Ikastolan. Reforren kirol azpiegitura oso onak dituzte eta baiezkoa eman zuten.

**Denbora asko eman duzu Euskadiko Quidditch elkartean?**

Ez, lau hilabete edo. Badaukat lagun bat Euskadi Quidditch elkarteko sare sozialak kudeatzen dituen eta laguntzen dut. Horrela hasi nintzen eta elkarte osoa laguntzera pasa nintzen.

Aurretik ez nuen mundu hau ezagutzen. Banekien Quidditchean jokatzeko zela, baina inoiz ez nuen jolastu. Nire lagunak gonbidatu ninduen entrenamendu batera joaten eta egia esanda, ez nintzen itzuli.

Gero, ordea, partida batera joan nintzen eta oso gogoko izan nuen. Eskubaloi eta rugbyaren arteko nahasketa da. Kontaktu fisiko handia dago, plakaketak egiten dira, besteak beste.

Lagun arteko partida bada ere, Amurrion egingo dut debuta, nolabait, orain arte entrenatu baino ez dut egin. Hala ere, Espainiako Selekzioa dago eta joan ginen eurekin entrenatzera. Uste dut laster sortuko dela Euskal Herriko Selekzioa. Ea zer moduz doan.

**Zein da zure posizioa zelaian?**

Quidditchean hiru posizio daude: chaser-aurrelaria-, beater-atzelaria-, eta keeper-atezaina-. Ni ohikoan chaser naiz. Ez daukat esperientzia handirik, baina oso gogoko dut korrika egitea eta ez naiz gelditzen gola sartu arte.

Nik beti jolastu dut futbolean eta aurrelaria nintzen. Oso txarra nintzen, baina golak egitea gogoko nuen eta Quidditchak aukera ematen dit. Gainera, Quidditchean kontaktu handia dago, edonork egin diezazuke plakaketa.

**Quidditchean plakaketak egiteko orduan, nola egiten duzue, aintzat hartuta kirol mistoa dela eta emakumezkoek, orohar, gutxiago pisatzen dutela?**

Emakume batzuek gizonzkoek baino plakaketa bortitzagoak egiten dituzte. Hortaz, ez diogu horri erreparatzen. Arau batzuk daude eta bete behar dira, besterik gabe. Ez dago ezberdintasunik.

**Larunbatean zein izango da zuen plana?**

64 lagunek eman dute izena, 5 Kataluniatik etorriko dira eta beste batzuk, dakidanez, Andaluziatik. Jende asko elkartuko gara.

Taldeek 21 kide dituzte eta zelaian talde bakoitzak 7 jokalaria jartzen ditu. Dena den, larunbateko asmoa da guztiok elkarrekin nahastuta jokatzeko. Jende berria egongo da, adibidez, Arrasateko lagun bat. Goizeko 10:00etatik 19:00ak arte egingo dugu.

**Amurrioko eta eskualdeko jendea animatu nahi duzu parte har dezan?**

Bai, Euskadi Quidditch bilatu dezaten Instagram edo Facebooken edo webgunean, izena eman dezaten. Asmoa da ondo pasatzea eta nahi duenak probatzea. Master Class bategingo da. Jende berria etorriko da, eta oso ondo pasako dugu. Ah! Eta ez izan beldur plakaketengatik.

**Urduri zaude?**

Lagun arteko partida da eta horregatik ez nago urduri.

**Zeintzuk dira Quidditcharen oinarritzko arauak?**

Bi pilota daude jokoan. Beaterrek baliatzen dutena da jokalaria kanporatzeko eta Chaserena, aldiz, golak egiteko. Horrez gain, 17 minutuan Snitcha ateratzen da. Honek pilota dauka atzeko aldean eta talde bakoitzak Seeker bat ere ateratzen du. Horren helburua da Snitcharen pilota harrapatzea. Gol arruntak balio ditu 10 puntu, baina Snitcherarena baliogarriagoa da.

Partida bakoitzak, gutxienez, 17 minutuko iraupena dauka, baina Snitcheraren arabera askoz gehiago luzatu daiteke.

**Harry Potteren jarraitzailea zara?**

Ez, ikusi ditut, jakina, baina ez naiz jarraitzailea. Aintzat hartu behar da, dena den, Quidditchak jadanik 20 urte dauzkala eta izena aldatu nahi diotela, J. K. Rowlingen adierazpen transfoengatik aldentzeko. Agian badaude jokalaria Harry Potteren zaleak direnak, baina ez du zertan horrela izan. Ez da nire kasua, ezta nire lagunaren kasua ere.

**Transfobiaren aurkako diskurtso oso argia daukazue, gainera.**

Jende askok badaki Quidditcha izan zela J. K. Rowlingen asmakina, baina guk ez dugu nahi bere ideia transfobo horiek kirolarekin lotzea. Quidditcha beti izan da berdinezalea, bakoitzak bere generoa dauka eta ez da binarioa izan behar.

Spikeball izeneko kirola praktikatzeari ekin diote Artziniegan. 4 lagun baino ez dira behar jolaserako. Kirola ezagutarazteaz gain, euren taldearen zein proiektuen berri zabaldu dute.

# Roundnet Aiaraldea, Artziniegako kirol praktika berria



Hego Ameriketako zein Estatu Batuetan oso arrakastatsua da kirola. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Nerea Loroño sortu du Roundnet Aiaraldea taldea, Artziniegan. Spikeball edo Around izenez ere ezaguna da kirol praktika, eta borobil formako sare txiki bat erdian jarrita, pilota pasatzean datza. "Kirol ezezaguna da. Taldeka jokatzeko da, binaka, biren kontra. Pilota elkarri pasatu behar diozu, gehienez 3 aldiz ukitua. Sare horizontal bat ukitu behar da, pilota beste taldeari pasatzeko", zehaztu du. 360 gradu ditu zelaiak, eta horrek bilakatzen du bizi.

"Oso jarduera fisiko konpletoa da, sarea lurretik 10 zentimetrora dago, eta beraz, asko makurtu behar da, edota korrika egin", erantsi du. Dena den, lur zoruak ez du horrenbesteko garrantziarik: "Europa mailan, lehiaketa ofizialak belar gainean egiten dira, bai-

na edonon praktika daiteke: parkean, hondartzan, zelaietan... Hori da bere alde ona, edonora eraman dezakezu sarea". Spikeball markak plaza-ratzen ditu sareak, eta uztaia eta 10 zentimetro inguruko pilota ematen diote. "Hasi-erabatean, niri, boleibolaren anaia txikia zela iruditzen zitzaidan; baina ez du zerikusirik, eta oso dibertigarria da". Arauak errazak izanik, edonori egokitutako ekintza da, azpimarratu duenez. Hargatik, Artziniegan taldea osatu dute, whatsapp bidez, nahi duenak elkartzeko eta partida bat antolatzeko aukera izan dezan: "Gauz ere jokatu liteke, badira argiztatutako pilotak ere, gainera".

Loroñori Aroundi buruzko zaletasuna urrunetik dator. Valentzian ikasi zuen, "eta harrapatu egin ninduen". Horrela egituratu zuen kluba Valentzian. Orain, baina, Ar-

tziniegarara etorri da bizitzera, eta berarekin ekarri du ideia. Asmo bera du: jendeak kirol hau ezagutu eta gozatzeko. "Hego Ameriketako zein Estatu Batuetan oso arrakastatsua da, eta geroz eta ezagunagoa da iparraldean ere", aipatu du. Talde irekiak sustatzen ditu, "nahi duen oro ongi-etorria izango da, edozein mailarekin". Loroño, Espainiako Around Federazio-kidea ere bada: "Izugarria litzateke, denbora igarota, Aiaraldeak Europako edo munduko txapelketa batean parte hartzea". Nazioarteko Around txapelketan lehiatuko da Loroño Mallorcan (Irla Baleareak).

Erronkei begira, Aiaraldean kirol hori saretzea du hizpide. Sare sozialak sortu ditu horretarako Roundnet Aiaraldea izenarekin topatu daiteke Instagramen. "Whatsapp taldeak zehazten ditu-

**"Izugarria litzateke, denbora igarota, Aiaraldeak Europako edo munduko txapelketa batean parte hartzea"**

gu partidak, baina inguruko herrietatik jendea sartu ahal, topaketak antolatuko ditugu edozein herritan jolasteko geratzeko, inolako konpromisorik gabe. Taldea irekia da, eta ez duzu astero-edo maiztasun batekin bertaratu beharrik". Ezta ikasita ere, "arauak eta jolasten irakasten diegu datozenei". Erraz harrapatzen da dinamika, baina kirolak ere arin pizten du partaidearen jakinmina, aitortu duenez: "Artziniegan txapelketaren bat antolatzeko gustatuko litzaidake".

Ez da Artziniegan sustatutako kirol praktika berri bakarra. Ramon Reyk Artzikirola izeneko jarduera sortu zuen, eta mundura hedatzen ari da, hitzarmen desberdinen bidez. Around kirolak, berriz, alderantzizko bidea egingo du: mundutik iritsi da Aiaraldera, mundu osoa dibertitzeko asmoz.

# kirola

MENDIZALETASUNA

## Mendiko Lagunakek urte osoko ibilaldien egitaraua aurkeztu du



Urte osoko behin-behineko programazioa aurkeztu dute. **Mendiko Lagunak**

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Behin-behineko egutegia aurkeztu du Amurrioko Mendiko Lagunak elkarteak. Urtarrilean egin zuten batzar orokorra, eta ekin diote jada urte berriko programazioa gauzatzeari. Iragan asteburuan neguko zeharkaldia egin zuten Astunen (Huesca), eta otsailan Baregesera bertaratuko dira (Grand Tourmalet) ibilaldia egitera. Hilaren 19an eta 20an izango da hori.

Ohiko ohiturei eutsi diete, gaintzekoan. Martxoaren 12an, sagardotegi denboraldia lagun, mendi ibilaldia egingo dute Gipuzkoako tontorretan barrena, eta ondoren sagardotegira joango dira bazkaltzera. Sare sozialetan aurreratu dutenez, 22. Korrikaren irteera ekitaldian ere

hartuko dute parte. Udaberriko oporretan -Aste Santuan- proiektu berezi bat osatuko dute, oraindik lantzen dabilzana. Maiatzean eta ekainean, berriz, gazteei begirako ekintzak proposatuko dituzte, La Leze arroila jaitsiera eta ur ekintzak kasu.

Udan, aldiz, Gure Esku Dagok pirineotako gailurrak argiztatzeko eginiko deialdiarekin egingo dute bat, aurreratu dutenez. Horrez gain, mendi zeharkaldiak aurreikusi dituzte uztailaren 9-10ko asteburuan, eta abuztuaren 5-7an.

Ikasturte berrirako eskaintza ere atera du elkarteak labeetik: irailean zeharkaldia antolatuko dute pirineotan, eta urrian Goizale aterpearen jai prestatu dute (hilaren 2an, hain zuzen). Gorobel mendi ibilaldiaren data ere jakinarazi dute: azaroaren 6an izango da.

XAKEA

## Udaberriko xake txapelketa egingo dute Amurrion martxoan

Testua  
**Txabi Alvarado Bañares**

Amurrio Xake Taldeko kideek ez dute atsedena hartzeko asmorik. Amaitu berri dute Neguko Txapelketa. Iñaki Sasiain, Jose Antonio Suizo, Ruben Pinedo eta Oskar Etxeberria gailendu ziren topaketan, eta xake taula bana

jaso zuten sari moduan. Norgehiagoka hori amaituta, udaberriko lehiaketa antolatzeari ekin dio xake taldeak. Martxoan egingo dute txapelketa.

Izen ematea irekita dago dagoeneko, eta otsailaren 28ra arte luzatuko da. Gizarte Etxean egin daiteke inskripzioa, ostegunetan, 18:00etatik 20:30etara bitartean.

ESKOLA KIROLA

## Itzulera indartsua izan du Eskola koirolak: Ziklokrosa Laudion eta krosa Etxaurrenen

Urtarrilaren 10etik etenda egon den eskola kirola berrabiarazi dute Arabako kirol federazioek. Ehunka haur elkartu dira azken asteburuetan Aiaraldean antolatu diren hitzorduetan.



Etxaurren Krosaren XXXI. edizioa

**Etxaurren Ikastolako guraso elkarteak antolatuta, Etxaurren Krosaren XXXI. edizioa ospatu zuten otsailaren 6an Ibagueneko kirol eremuan. 2007 eta 2013 urteen artean jaiotako dozenaka gaztek hartu dute parte lasterketetan, eta kiroltasuna eta giro ona izan ziren nagusi.**

# herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 23an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



## Marene

Zorionak Marene! 12urte!  
Egun zoragarria izan  
Maite zaitugu!

Familia



## June

Zorionak laztana: Urteak igaro  
ahala gero eta maitekorrago,  
jatorra, arduratsu eta alaiagoa.  
Maite zaituguuuuu!!!

Periko eta Mari Paz



## Edorta

Zorionak Edorta!!!!  
Asko maite ziatugu!

Etxekoak



BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!

## Denborapasak

### ERRAZA

	4		6		5			
3					8			2
2		5	3		7		4	6
	3		4	7	2	8		
		6						
	9		5	8	6			
				5				8
4	5			6				
6			8				7	

### ZAILA

				5		8	2	
	5		2	8	6			
8			3		7	6		5
	8			4			5	7
							6	
			2		6		4	9
4	7	6	5				8	2
	3		4					
5								4

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK** Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



Sara Cabreraren *Marcada por el demonio I - El principio del fin* liburuaren ale sinatua zozketatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Artisau garagardo sorta baten zozketan parte hartzeko aukera. Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** otsailak 18, 12:00etan.

## BALIABIDE GUNEA

### TTIPI - TTAPA

**Egilea:** Marti eta Marrabilla

**Urtea:** 2021

**Adina:** 3 urtetik aurrera

Izarrek jakinmina handia zuen, baina batzuetan ahots zelatarien matrakak entzuten zituen... Bidean topatu ahal ditugun oztopo eta beldurrei aurre egiteko deia da liburu hau. Ausardia abiapuntu, familiaren garrantzia eta autoestimua lantzen ditu.



### \_ENERITZ\_

**Ilustratzailea:** Eneritz Goienola

**Teknika:** Collage digitala

**Adina:** 12 urtetik gora

Hitzen bitartez ezin duena esan, collage digitalaren bidez adierazten du Eneritzek. Instagram bidez argitaratzen ditu bere sorkuntza koloretsuak. Mezu indartsuak eta aldarrikatzaileak. Begietarako plazera, sartu eta kuxkuxeatu.



## JOLAS GUNEA

### TXIKIPEDIA

**ZERDA?:** Txikipedia haurrentzako euskarazko entziklopedia txiki eta askea da. Proiektu honetan edonork parte har dezake artikulua idatziz, aldatuz edo osatuz, informazioa gehituz edo zuzenduz. Artikuluak errazago topatzeko 7 ataletan berezituta daude: kultura, biografiak, geografia, gizartea, historia, natura eta zientzia.


#### KOMIKIAK TXIKIPEDIAN "IKASI OTSOREKIN" PROIEKTUA

**Egilea:** Irribarrez, Enaut Aiartzaguena

**Adina:** 8-13 urte bitarteko gaztetxoak

Txikipedia eta Irribarrez ilustratzailea eta komikigilearen artean sortutako proiektua da. Bertan, Otso izeneko pertsonaiak hainbat gairen inguruan azalpenak modu errazean

emango dizkigu komiki formatuan: erleen desagerpena, pirinioetako azken glaziarrak, euskal dantzak eta genero bereizketa, ... Hamabostean behin argitaratuko dituzte.



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Aspertu

Asteburuan lurra esnatu genuen gure makilekin eta Euskal Herrian hainbat txokotan ikus ditzakegu Joaldunak eta beste pertsonai ugari joareekin edo kriskitinekin Amalurri egunon esanez. Gaur ere txikitzen doala ikusten dugu eta Ekhik gehiago irauten du gure artean.

Argia lagun, denbora gehiago izaten dute haurrek kalean jolasteko. Zeinen garrantzitsua den haurrek kalean, naturaz inguratuak jolastea. Biofobiaren garaia ari gara bizitzen, kontrolatzen ez ditugun basoak eta zuhaitzak arriskuz beteak ikusten ditugun garaia. Teknologia gure bizitzetan geroz eta presenteagoa da, eta laguntzen gaituen arren, presentzia hori oso handia da.

Haurrek ordu asko pasatzen dituzte pantailen aurrean, erraz dute pantaila bat hartzea eta bere mugimendu bizietan murgiltzea. Aspertzeko unerik ez dute, eta beraz sortzeko ere.

Haurren jolasean eta heltze prozesuan ezinbestekoa da aspertze momentuak izatea. Jolasten kontzentratuak egotetik, lasaitasunera pasatzen dira eta zer egin ez dakiten momentu horretara. Aspertzen ari direla ikusten dugun momentu horretara. Helduok une horretan, egiteko zerbait ematen badiegu, pantaila bat hurbil badaukate, haurrek ez dute beraien burua erabiliko beste jolas bat sortzeko eta beraz, beraien sormenean eragiten ari gara.

Haurra ez da ezer egin gabe denbora luzez egongo, aspertzen den momentu horretan, bere gorputzarekin jolasten hasiko da, ingurutik pasa den intsektu txikia aztertuko du, zuhaitzen firin faranarekin dantza egingo du edo hodeien formekin amesten hasiko da... Aspertzen denean, mundua deskubrituko du eta naturarekin harremanetan sartuko da.

Lurra esnatzen ari den honetan ere, jolasten eta aspertzen utzi gure inguruko haurrak eta harritu gaitzen beraiekin batera sortzen dituzuen jolas eta abenturekin.

## ARATUSTE TOSTADAK



### OSAGAIK

- Ogi zaharra
- Esnea
- Arrautzak
- Irina
- Limoia
- Kanela adarra
- Olio
- Azukrea
- Kanela

### NOLA EGIN?



1. Lapiko batean esnea, limoi azala eta kanela adarra jarri. 5 minutu egosi. Epeldu.
2. Ogi xaflatan moztu eta plater batean jarri. Esnea gaintetik bota eta 10 minutu bustitzen utzi.
3. Plater batean irina jarri eta arrautzak irabiatu. Ogi zatiak hartu, irina eta arrautzatik pasatu.
4. Zartaginean olio jarri eta tostadak frijitu.
5. Sukaldeko paperaren gainean utzi, azukrea eta kanela bota eta prest!

# Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira onak, baina bigarrenak, sei hizki dituzenez, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.





			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

## Margotu



## DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.



## Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islaren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.

## SOLUZIOAK

**Sudokua**  
 Herensuge hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I) bete itzazu hutsuneak lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

**Dominoan**  
 Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domino zatiak zentzua izan dezan.

**Zortziko txikia**  
 Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien islaren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.

# Kontra

## Mundutik Aiaraldera



Jeff Kramer

MEXIKO



### SALVADOR CASTAÑEDA

JAIOTERRIA  
MEXIKO (1980)

BIZILEKUA  
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA  
IKASKETAK



#### DESKRIBAPENA

Ipar-Amerikako hegoaldean dagoen estatua da Mexiko, eta Mexiko Hiria da bere hiriburua. Tenochtitlan hiri aztekaren gainean dago eraikia, gaur egun desagertuta dagoen Texcoco aintziran bertan. Mexiko Hiria munduko hirugarren metropolirik populatuena da, Tokio eta New Yorkeko metropolien atzetik

#### BIZTANLEAK

124 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Gaztelania, náhuatl, maia, chol, totonaca, mazateco edota mixteco dira Mexikoko hizkuntzak.

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa:  
egunkaria@aiaraldea.eus  
agenda@aiaraldea.eus  
agurrak@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publicitate@komunika.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea, Elixarritz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunatze Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

## “Egoera surrealistekin egiten dut topo Mexiko Hiriko kaleetan barrena argazkiak egitean”

Salvador Castañeda Hernandezek argazkilaritza du afizio, eta bere ofizioa bilakatu da urteen poderioz.

Nondik datorkizu argazkilaritzarekiko zaletasuna?

15 urte nituela hasi nintzen argazkilaritzaren munduan, oraindik negatiboak erabiltzen ziren garaian. Unibertsitatera sartu nintzenez alba batera utzi nuen zaletasuna, eta berriz heldu nion gero, masterra egin nuenean. Ordutik aurrera argazkilaritzan murgilduta egon naiz uneoro. Hona iristean enkarguzko lanak egiten hasi nintzen, Amurrioren denda ireki nuen arte.

Kaleko argazkilaritza edo estudiokoa, zer duzu nahia?

Lehen oso gustuko nuen kaleko argazkilaritza. Etapaka doan zerbait dela uste dut. Argazkilaritzan hasi nintzenez oso gustuko nuen kalera ateratzea, Mexiko hirian surrealista diruditen egoerekin topo egin dezakezulako.

Zer motako egoerak?

Jende asko dago, pobrezia asko ere... denetarik topa dezakezu. Mexiko ez da bakarra, asko dira. Kale batean opartasuna ikusi dezakezu: eraikin erraldoiak, luxuzko autoak... Hurrengo izkinan, orde, janaririk ez duen haur batekin egin dezakezu topo, kalean txikleak saltzen ari dena. Oso kontraste handiak daude. Jendeak edo zer gauza egiten du bizirauteko.

Gaztetan nire aitarekin joa-

ten nintzen argazkiak egitera, hiria goitik behera ezagutzen zuelako. Bilbon nengoenean ere ateratzen nintzen kalera, jendeari argazkiak ateratzera. Baina oso zaila suertatzen zitzaidan. Oso gutxitan ausartu naiz kaletik doan persona bati erretratu bat eskatzea. Lotsa ematen dit (barreak). Baina gustuko dut kaleei eta jendeari argazkiak egitea. Politu da argazki batean agertzen den jende guztiarekin zenbat istorio kontatu ahalko lirartekeen imajinatzea.

Mexikon ere horrelakoak egiten zenituen?

Mexikon eguneroko eszenak erretratatzeko nituen. Edozein argazkilarik gaztekin egin nahi duen lehenbiziko gauza eskale bat erretratatzeko da, hori da

Mexikon burura etortzen zaizun lehenengo ideia. Argazki andana egin nien dirua eskatzen zeuden emakume nagusiei. Kalean lanean zeuden haurrei ere egiten nizkien argazkiak... oso ohiko gaiak dira horiek bertako argazkilaritzan, hori delako arreta gehien deitzen dizuna kalera ateratzen zarenan. Gero bilakaera bat egoten da argazkilarietan, eta baikoitza arlo zehatz bat lantzen hasten da.

Nik bi argazkilaritza mota bereizten ditut: bizitzeko egiten dena (ezkontza eta antzeko ekitaldietakoa) eta artistikoa. Sorkuntzaren esparruan, “erakitako argazkilaritza” egitea dut gustuko. Eszena edo egoera bat asmatu eta irudikatzean datza, benetakoa izango balitz bezala.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA